

# **EUSKAL MUSIKAGINTZA (1960-2005)**

**Egileak:**           **Ima Agiriano Murua**  
                          **Amaia Erostarbe Letamendi**  
                          **Joseba Gallastegi Beobide**  
                          **Gabiñe Insausti Lasa**  
                          **Ana Jauregi Arriolabengoa**  
                          **Txiki Ollora Garrido**

## **Esker ona**

Ezer baino lehen, gure eskerrik beroena adierazi nahi diegu lan hau gauzatzen lagundu diguten guztiei, eta, bereziki, egitasmo honetan bidelagun izan ditugunei.

Oso lagungarria gertatu zaigu *Aho bete kanta* egitasmoa, asko erraztu baitugu zenbait material grafikoren eta musikaren bilketa; beraz, eskerrik asko.

Hala Bedi irratiko musika-arduradun Koldo Zubizarretari ere eskerrak eman nahi dizkiogu, azken urteetako musikari eta taldeei buruzko informazio baliagarria eman digulako; Jose Mari Iriondori ere “eskerrik asko” esan nahi diogu, adeitasun handiz erantzun baitzizkien egindako galderei; esker anitz, halaber, Oñatiko liburutegiko Marina Etxegoien liburuzainari, adeitsu hartu gaituelako beti eta bibliografia biltzeko orduan laguntza ezin hobe eskaini digulako.

Eskerrik zintzoenak, era berean, gure lankide Pako Eizagirreri, bere ahotsa eskaini eta grabazio-lanetan lan eskergea egiteagatik. Era berean, lantaldeko kide den Joseba Gallastegiri “eskerrik asko” esan nahi diogu, diaporamak gauzatzeko egindako ahalegina ezinbestekoa izan delako.

Bukatzeko, eskerrak gure tutore Iñaki Urruzolari, beti laguntzeko prest eta gure alde izan baitugu.

# Aurkibidea

Esker ona .....	2
<b>Aurkibidea.....</b>	<b>3</b>
1. atala: Aurkezpena .....	8
1. <b>Sarrera.....</b>	<b>9</b>
2. <b>Helburuak .....</b>	<b>10</b>
3. <b>Atalak eta azpiatalak .....</b>	<b>11</b>
4. <b>Metodologia .....</b>	<b>13</b>
5. <b>60ko hamarkada aurretiko euskal kantagintza: marko teorikoa .....</b>	<b>13</b>
2. Atala: 60ko hamarkada.....	20
1. <b>Giro sozio-politikoa.....</b>	<b>21</b>
2. <b>Aurreko egoera / Kantagintza Berria .....</b>	<b>21</b>
3. <b>Kantautorea: definizioa .....</b>	<b>22</b>
4. <b>Kantagintza Berriaren aitzindariak: Nemesio Etxaniz, Michel Labéguerie..</b>	<b>23</b>
5. <b>Ez Dok Amairu taldea.....</b>	<b>24</b>
a. Partaideak .....	24
b. Helburuak.....	24
c. Bidelagunak: idatzizko komunikabideak, irratiak, kantaldiak eta diskoetxeak .	25
d. Zentsura .....	26
e. Politika.....	27
f. Lortutakoa.....	28
g. Funtzioak taldean.....	30
h. Eragin musikalak.....	30
i. Ez Dok Amairuren itzala.....	31
j. Taldea desegitea.....	31
6. <b>Diskografia.....</b>	<b>33</b>
3. Atala: 70eko hamarkada .....	35
1. <b>Giro sozio-politikoa.....</b>	<b>36</b>

<b>2. Izar berriak kantagintzaren zeruan.....</b>	<b>36</b>
a. Komunikabideak.....	37
b. Diskoak eta diskoetxeak.....	37
c. Kantaldiak.....	38
d. Ikuskizunak.....	39
<b>3. Hegoaldeko diskogintza.....</b>	<b>40</b>
a. Baztertuak.....	41
<b>4. Iparraldeko abeslariak.....</b>	<b>41</b>
<b>5. Bide berriak euskal kantagintzan.....</b>	<b>42</b>
<b>6. Diskografia.....</b>	<b>43</b>
4. Atala: 80ko hamarkada.....	46
<b>1. Giro sozio-politiko.....</b>	<b>47</b>
a. Hegoaldean.....	47
b. Iparraldean.....	48
<b>2. Punk mugimendua.....</b>	<b>49</b>
<b>3. Euskal Rock Erradikala (RRV).....</b>	<b>50</b>
a. Hegoaldean.....	50
b. Iparraldean.....	52
<b>4. Laurogeiko hamarkadako diskografia, RRVz gain.....</b>	<b>52</b>
a. Hegoaldean.....	52
b. Iparraldean.....	53
<b>5. Diskografia.....</b>	<b>55</b>
5. Atala: 90eko hamarkada.....	58
<b>1. Giro sozio-politiko.....</b>	<b>59</b>
a. Hegoaldean.....	59
b. Iparraldean.....	61
<b>2. Lore digitalak zaborraren erdian (1990-1999).....</b>	<b>61</b>
<b>3. Gizarte-mugimendua eta musika.....</b>	<b>62</b>
Iparraldeko taldeak.....	63
<b>4. Bestelako musika mugimenduak.....</b>	<b>64</b>

<b>5. Diskografia</b> .....	<b>65</b>
6. Atala: Azken urteak (2000-2005) .....	74
<b>1. Giro sozio-politiko</b> .....	<b>75</b>
<b>2. Musika-giroa</b> .....	<b>76</b>
Ken Zazpi .....	77
Sorkun.....	78
<b>3. Diskografia</b> .....	<b>81</b>
<b>4. Ondorioak</b> .....	<b>87</b>
<b>Bibliografia</b> .....	<b>88</b>
Bideoak.....	90
Interneteko helbideak.....	91

## Laburpena

Lan honen helburu nagusiak bi izan dira: alde batetik, azpimarratu eta erakutsi euskal kantagintza euskal kultura transmititzeko eta norberaren identitatea eraikitzeke ezinbesteko dela; bestetik, 60ko hamarkadatik gaur arteko euskal kantagintzaren historia idatzi.

Aipatutako helburuak lortzeko, hamarkada bakoitzean, garaiko kultura-, politika- eta gizarte-giroari erreparatu diegu lehenengo; ondoren, hamarkada horretako mugimendu nagusiak, kantariak eta kanta esanguratsuenak aztertu ditugu; bukatzeko, material horrekin lau diaporama prestatu ditugu, hamarkada bakoitzetik bat: 60koa, 70koa, 80koa, 90koa eta azken urteetako (2000-2005).

Hamarkada bakoitzean, honako puntu hauek garatu ditugu:

- 60ko hamarkadan: giro sozio-politikoak; aurreko egoera / Kantagintza Berria; kantautorea: definizioa; Kantagintza Berriaren aitzindariak; Ez Dok Amairu taldea.
- 70eko hamarkadan: giro sozio-politikoak, Kantagintza Berriaren bigarren aroa eta momentuko taldeak.
- 80ko hamarkadan: giro sozio-politikoak, *Punk* mugimendua eta Euskal Rock Erradikala (RRV).
- 90eko hamarkadan: giro sozio-politikoak, lore digitalak zaborraren erdian.
- Azken urteetan (2000-2005): giro sozio-politikoak, eta kulturaren eta musikaren joerak.

Gure lana garatzeko, alde batetik, informazioa bildu dugu, horretarako dagoen bibliografia eta web-orriak aztertuz. Bestetik, jasotako informazioa ordenatu, eta modu dibulgatiboan ematen saiatu gara. Azkenik, lau diaporama prestatu ditugu, eta, horretarako, aurrena, materiala aukeratu dugu: kantariak, abestiak, irudiak eta esatariak; hurrena, gidoia idatzi dugu eta, bukatzeko, ekoizpen-lana egin dugu.

Lan honen helburua, 60ko hamarkadatik hasita, euskal kantagintzaren historia egitea izan da, IRALEko ikasleen artean euskal kulturaren arlo hau ezagutarazteko,

transmisioa ziurtatu nahian. Lortu al dugu helburua? Gure ustez, neurri batean, bai; lana irakurri edota diaporamak ikusten dituenak garai horretako euskal musikagintzaren ikuspegi orokor bat izan baitezake. Dena den, dudarik gabe, lan laburra da, eta, beraz, ez du gaia ahitzen, ez da azterketa osoa; izan ere, guk mugimendu eta kantari nagusiak jaso ditugu. Hamarkada bakoitzean, beraz, zenbait kantari aipatu gabe geratu dira. Gainera, 80ko hamarkadatik aurrera, ez dago bibliografia askorik.

# 1. atala: Aurkezpena

---



## 1. Sarrera

*Abo bete kanta* egitasmoa osatzen duten 221 abestiak hartu ditugu lan honen abiapuntu. 60ko hamarkadan hasi, eta 2005. urtera bitarteko euskal kantagintza izan dugu aztergai. Horretarako, berrogei urte horietako musika-mugimenduak ezagutu, eta identifikatu ditugu, eta mugimendu bakoitzaren kantari eta kanta esanguratsuenen berri eman dugu. Gainera, garaiko kultura-, politika- eta gizarte-giroari ere erreparatu diogu, gehienetan kantak eta kanten letrak garaiko giroaren ondorio izaten dira eta. Horiekin batera, gure herrian ibilbide luzea izan, euskal kantagintza berriaren ikur izan eta, neurri batean, bertako musika tradizionalera hurbiltzeko saioa egin duten abeslari / taldeei eta euren lanei ere arreta berezia eskaini diegu: Benito Lertxundi, Mikel Laboa, Xabier Lete, Imanol Lartzabal, Juan Carlos Perez, Anje Duhalde, Ruper Ordorika, Oskorri.

Proiektu honekin IRALEko irakastegian erabilgarria izango den material egokia sortu gura dugu hainbat euskarritan, eta, era horretan, baliabideak eskaini, bai euskal kulturaren transmisioa, bai euskararen normalizazioa ahalbidetzeko eraginkortasunez. Lanaren emaitza hauxe da: 60ko hamarkadatik honako mugimendu, kantari eta abesti esanguratsu eta nabarmenenen inguruan diaporama ekoitzi. Izan ere, gure irakastegian euskal kulturaren berri ematean, kantu eta dantza tradizionalaz, bertsolaritzaz, euskalkiez, eta ahozko literaturaz eta literatura idatziaz arduratu gara nagusiki. Orain arte ez dugu jardun euskal kantagintzaz, baina hemendik aurrera mugimendu horren inguruan ibili diren kantariak, kantak eta letrak ere baliatu gura ditugu euskal kultura transmititzeko R ikastaroetako gure ikasleei.

Euskal kultura eta transmisioa aipatu ditugu; hala ere, zeri deitzen zaio kultura? Herderren esanetan, kultura (bakuna) barik, kulturak (anitzak) daude (Amezaga 2005: 118), alegia, herri ezberdinen kulturak. Herderri herri xehearen kultura-aurkitzailea izatea aitortzen zaio; berak herri xehearen adierazpideetan bilatuko du nazio bakoitzaren izaera, nazioaren espiritua herri xeheak gordetzen du eta. Horrenbestez, herri xehea naturalagoa, berezkoagoa da, kultura unibertsalagoaren aldean. Herderrena da herri bakoitzaren espirituaren ideia ere. Berak, gainera, maila berean jartzen ditu herri xehearen kultura eta goi-kultura, biak baitira herritartasun beraren agerpenak. Herri kulturaren ulerkera hau, Williams-en esanetan, Erromantizismoaren eskutik zabaldu zen, eta baita Europan XIX. mendean sortu ziren nazionalismoen bidez ere (Amezaga 2005: 119).

Oso ondo datorkigu haren pentsaera euskal kantagintza eta kantagintza horren inguruko giroa uztartzeko. Beraz, gure definizioan *kultura* hauxe izango da: egitura materialen errepresentazio edo birsorketa sinbolikoaren bitartez, gizartea ulertzen, birsortzen, edo eraldatzen laguntzen diguten jarduera multzoa (Amezaga 2005: 123). Gainera, kultura gizartearen isla da, baina isla izateaz gain, gizarteko egiturak sortu eta birsortu ere egiten ditu; hau da, gizarteko menderakuntza-harremanen ondorioa izateaz gain, gizartearen eragilea ere bada kultura.

Guk, oro har, euskaraz sortutako abestiak hartu ditugu aintzat; euskaraz egindako kultura, hortaz. Hizkuntzari esker komunitate bateko kideztat ikusten dugu geure burua (Biosca i Llahí: 18). Hizkuntza zeinu-sistema da, mundua definitu eta irudikatzeko erabiltzen dena eta alde nabarmenak ezartzen dituena. Hori dela eta, hizkuntza horretan sortutako abestien eragina eta balioa itzela da identitatea eraikitzeke.

## 2. Helburuak

**Helburu orokorrak.** Lan honek bi xede nagusi ditu: batetik, musikaren garrantzia nabarmendu, eta erakutsi euskal kantagintza euskal kultura transmititzeko eta norberaren kultura-identitatea eraikitzeke baliabidea dela; bestetik, oinarri teorikoak ezarri, 60ko hamarkadatik 2005era bitarteko euskal kantagintzaren historia osatu ahal izateke.

**Helburu didaktikoak.** Honako hauek dira:

1. 60ko hamarkadaz gero agertu diren musika-mugimenduak ezagutu.
2. Hamarkada bakoitzean bizi izandako politika-, gizarte- eta ekonomia-giroaren berri eskaini.
3. Garaian garaiko giroa eta kultura-ekoizpenak uztartzeko saioa egin, eta aztertu uneko egoerek zenbaterainoko eragina izan duten aztergai dugun euskal kantagintzan.
4. Kanta esanguratsuak eta ikur bilakatu direnak aurkeztu, letra eskuratu, musika-melodia ezagutu.
5. Mugimendu bakoitzean nabarmendu den kantaria edo taldea identifikatu.
6. Gure herrian ibilbide luzea izan, eta bertako musika tradizionalera hurbiltzeko ahalegina egin duten kantarien edo taldeen lana azpimarratu.
7. 60ko hamarkadaz geroko euskal kantagintzaren historia laburra egin, eta diaporamaren bidez aurkeztu.

### 3. Atalak eta azpiatalak

<b>60ko hamarkada</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Giro sozio-politikoak</li> <li>▪ Aurreko egoera / Kantagintza Berria</li> <li>▪ Kantautorea: definizioa</li> <li>▪ Kantagintza Berriaren aitzindariak: Nemesio Etxaniz, Michel Labéguerie</li> <li>▪ Ez Dok Amairu taldea             <ul style="list-style-type: none"> <li>– Partaideak</li> <li>– Helburuak</li> <li>– Bidelagunak: idatzizko komunikabideak, irratiak, kantaldiak eta diskoetxeak</li> <li>– Zentsura</li> <li>– Lortutakoa</li> <li>– Funtzioak taldean</li> <li>– Eragin musikalak</li> <li>– Itzala</li> <li>– Taldea desagitea</li> <li>– Diskografia</li> </ul> </li> </ul>
-----------------------	---

<p><b>70eko hamarkada</b></p>	<p><b>Kantagintza Berriaren bigarren aroa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Giro sozio-politikoak</li> <li>▪ Kantautoreak <ul style="list-style-type: none"> <li>– Kantagintza pertsonalagoa: Lertxundi, Lete, Laboa, Imanol, Eizmendi, Txomin Artola...</li> <li>– Kantagintza erreibindikatiboa: Urko, Gorka Knörr...</li> <li>– Baztertuak: Oskorri eta Imanol</li> </ul> </li> <li>▪ Taldeak <ul style="list-style-type: none"> <li>– Folk-a: Oskorri eta Haizea</li> <li>– Euskal rock-aren sorrera Iparraldean: Errobi, Niko Etxart</li> <li>– Pop-a: Itoiz</li> </ul> </li> <li>▪ Diskografia</li> </ul>
<p><b>80ko hamarkada</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Giro sozio-politikoak</li> <li>▪ Punk mugimendua</li> <li>▪ Euskal Rock Erradikala (RRV)</li> <li>▪ Bestelako kantariak eta taldeak</li> <li>▪ Diskografia</li> </ul>
<p><b>90eko hamarkada</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Giro sozio-politikoak</li> <li>▪ Lore digitalak zaborraren erdian <ul style="list-style-type: none"> <li>– Gizarte-mugimendua eta musika</li> <li>– Kantariak eta kantak</li> <li>– Talde esanguratsuak: Su ta Gar, Negu Gorriak...</li> </ul> </li> <li>▪ Diskografia</li> </ul>
<p><b>Azken urteak (2000-2005)</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Giro sozio-politikoak</li> <li>▪ Kulturaren eta musikaren joerak <ul style="list-style-type: none"> <li>– Kantariak eta kantak: Sorkun, Ken Zazpi</li> </ul> </li> <li>▪ Diskografia</li> </ul>

## 4. Metodologia

Gure eginkizuna aurrera eramateko, honelaxe jardungo dugu: batetik, informazioa bildu, eta, bestetik, jasotako informazioa baliatu historia idazteko.

Horretarako, lehenengo, euskal musikaren, Euskal Kantagintza Berriaren, eta kultura eta identitatearen inguruko bibliografia eskuratu behar izan dugu; baita gai horien inguruko web-orri interesgarriak ezagutu ere. Bibliografia eta berriok irakurri bitartean, mugimenduei eta mugimendu bakoitzean gailendu diren kantariei eta abestiei erreparatzeko ahalegina egin dugu. Adierazi gura dugu ez dagoela larregiko bibliografiarik euskal musikaren gainean, ezta Euskal Kantagintza Berriaz ere.

Ondoren, euskal kantagintzaz jasotako datuok ordenatu, eta mugimenduak identifikatu eta interpretatu ditugu; lan horretan, kronologia izan da sailkapenaren eta ekoizpenaren ardatz nagusia. Azkenik, diaporama prestatu dugu: materiala aukeratu (kantariak, abestiak, irudiak, esatariak); gidoia idatzi; eta ekoitzi.

## 5. 60ko hamarkada aurretiko euskal kantagintza: marko teorikoa

Euskal kantagintzari marko teorikoa eskaintzeko eta bere historia idazteko saio honetan, euskal musikaren historia hartu gura izan dugu aintzat (bai herri-musika, bai bertako konpositoreena). Ezinbestekoa da lan hau segida horretan kokatu ahal izatea eta gure herrian ondoren sortutako musikan izan duten eraginaren nondik norakoak ezagutzea.

Horregatik, biziki interesgarria iruditu zaigu XIX. mende bukaerako eta XX. mende hasierako Erromantizismoaren eta nazionalismo musikalaren berri ematea. Era berean, ezin dugu utzi aipatu gabe Frankoren garaiko musika identitarioa, XX. mendearen erdi ingurutik aurrera indarrez zabaldu zena (Biosca i Llahí: 16-17).

**Erromantizismoa eta nazionalismo musikala.** European, XIX. mendearen erditik aurrera, Erromantizismoak herri-musika bultzatu zuen (Arana Martija 1985: 55). Musika-arloko herrikoitasuna musikan eta hizkuntzan oinarritzen da, eta biak

nabarmetzen dira Europako etnien agerpide gisa. Honelaxe mintzatu zen Rousseau: “Edozein musika herriarena da, nazionala da, eta herri-hizkuntzatik sortzen zaio bere izaera; hizkuntzaren prosodiak ematen dio musikari berezitasuna” (Arana Martija 1985: 55). Hori dela eta, herri bakoitzean, bertako kantak eta melodiak ezagutzera ematen hasi ziren, eta musikaren araberako herri-mosaikoa sortu zen. Iraultza hori, ordura arte italiar musikaren nagusitasunari gailendu zitzaiona, Europako leku guztietan agertu zen apurka-apurka. Erromantizismoaren ezaugarri nabarmena hauxe zen: herriaren ondarea eta herrikoitasuna baloratu. Horrela, William J. Thoms ingelesak 1846an *folklore* berba asmatu zuen, herriaren jakintzari (arteari) izen bat emateko (Arana Martija 1985: 56). Erromantizismoaren ondorengo nazionalismo musikala izan da.

Erromantizismoaren itzalean, euskaldunok ere bat egin genuen Erromantizismoaren ikur den adierazpen honekin: “Musika nazionala daukagu, herri musikan oinarrituta eta bertako hizkuntzan sortutakoa izateak bereizten du”. Horregatik, XIX. mendearen erdian (baita lehenago ere), norberaren kulturaren eta bertako hizkuntzan sortutako folklorea, dantzak eta herri-musika biltzeko lan asko egin ziren (Arana Martija 1985: 56-58). Batzuk aipatzearen, hauexek aipatuko ditugu hemen: iparraldekoen artean, Julien Vinsonen *Le folklore du Pays Basque* (1883) eta Francisque Michelen *Le Pays Basque, sa population, sa langue, ses moeurs, sa litterature et sa musique* (1857); hegoaldekoen artean, berriaz, Juan Inazio Iztuetaren *Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira edo historia* (1824), R.M. Azkueren *La música popular vascongada* (1901) eta *Cancionero Popular Vasco* (1922), eta Aita Donostiaren *Gure abendaren ereserkiak* (1912).

Ildo horretatik, Europan gertatu lez, Euskal Herria ere nazioaren baieztapenaren bide horretan abiatu zen. Horrenbestez, Europan zehar zabaldutako nazionalismo musikala piztuta zegoen gurean ere XIX. mendearen bukaeran (Arana Martija 1976: 166, 168-174): nonahi sortu ziren organujoleak, elkarte filarmonikoak, orfeoak, konpositoreak, musika-bandak; aipagarriak dira Gipuzkoako Aldundiak antolatzen zituen Euskal Jaiak ere. Adierazi behar da musikariok herrian edaten zutela musika sortzeko.

Bukatzeko, aipatu XIX. mende bukaerako eta XX. mende hasierako Euskal Herriko konpositoreak Europako musikari begira jarri zirela; izan ere, bertan musika-hizkuntza berria eta mezu artistikoa adierazteko teknika berriak zeuden. Alabaina, herri-musika atsegin zuten, eta, gainera, alderdi lirikoena aurkitu nahi izan zioten. Haien asmoa argia zen: Europako musika berria eta Euskal Herriko herri-musika uztartu ahal izatea.

Esaterako, Parisen egon ziren Guridi, Usandizaga, Azkue eta Aita Donostia; Isasi eta Sorozabal, berriz, Alemania aldean ibili ziren.

**Musika eta identitate nazionalak.** XX. mendean, beste hainbat tokitan bezala, hemen ere hizkuntza berezko osagaia izan zen identitate nazionala eraikitzeke (Biosca i Llahí: 20). Garaiko giro politikoan, Frankismoaren azken urteetan eta ondorengoetan, botere espainiarrak ahaleginak egin zituen gaztelaniaren ardatz etnikoa erabiltzeko eta estatu osoa kulturalki nazionalizatzeko. Izan ere, hizkuntzak ezberdintzen zituen leku bateko eta beste bateko biztanleak Espainian.

Horrekin batera, ezin da ahaztu Europa osoan musika nazionalizatzeko ahaleginak sortu zirela: musika dagoeneko ez zen bakarrik entzuteko; kategoria identitarioa eta nazionala ere hartu zuen. Horregatik, musikaren alderdi estetikoak, hein batean, galdu zen, eta politikarekin uztartzen hasi zen (Biosca i Llahí: 17).

**Euskal Kantagintza Berria.** Aipatutako testuinguru horretan, 1964-1965 urteen bueltan, lehen urratsak eman zituen euskal kantagintzaren mugimenduak, Euskal Kantagintza Berria izenarekin ezagutzen dugunak.

Hala ere, mugimendu horri heldu aurretik, garai hori baino apur bat lehenago Euskal Herrian musikari lotuta ageri diren bi izen ekarriko ditugu gogora: Nemesio Etxaniz eta Pierre Bordazarre *Etxahun Iruri*.

Nemesio Etxaniz apaiza (Azkoitia, 1899-1982) euskal idazle, olerkari eta kultura-eragilea izan zen, eta gerraondoko giroa berpizten saiatu zen. Euskaingintzan sartu zen buru-belarri, euskaldun bizi-nahiak bultzatuta, eta lan eskerga egin zuen. Euskararentzat bide berriak urratu guran, euskara kultura-hizkuntza bihurtzeari eman zion lehentasuna; horretarako, euskararen hainbat arlo jorratu zituen: antzerki-taldeentzat gidioiak gertatu, Loiola Herri Irratirako, eta Arrate eta Segura Irratietarako gidioiak idatzi, aldizkarietarako kontakizun atseginak egin, ikastolen mugimendua bultzatu... (Sudupe 1997: 12-13 or.).

Lan honetan, batez ere, musikari eskaini zion arretarengatik jaso dugu: *Kantakantari* kanta-bilduma taxutu zuen 1951n; bertan, tradiziozko euskal kantez gain (adibidez, *Anttoni*, *Anttoni zure atzean nago ni...* abesti ezaguna), modan zeuden kanpoko kantak euskaratu zituen (tangoak, rumbak, fox-trot-ak). Izan ere, erdal abesti modernoek gazteria erakartzen zutela ikusita, abesti horiei euskal hitzak ezartzen hasi zen, kanta modernoek leku eginez (Sudupe 1997: 12 or.). Gainera, pittinka-pittinka gorputza

hartzen ziharduen Euskal Kantagintza Berriari ere eragin omen zion, Pako Sudupek dakarren moduan (Sudupe 1997: 12 or.): “Ez Dok Amairu taldearen sorreran hor ageri da apaiz modernoa, Mikel Laboa eta gainerakoekin batean tradizioa eta modernia egoki uztartu nahian”.

Aipatzeko modukoa da ere Pierre Bordazarre *Etxabun Irurik* (1908-1979), Zuberoako Irurin jaiotako sortzaileak, egindako ekarpena. Hein handi batean, Iparraldeko euskarazko hainbat kultura-adierazpenetan, pastorgile eta bertsolari gisa egindako jardunagatik izan da ezaguna gure artean. 1952-1980ra bitartean, bederatzita trajería edo antzerki idatzi, eta eman zituen: *Etxabun koblakari* (1953), *Matalax* (1955), *Berterretx* (1958), *Le Conte de Tréville* (1966), *Chikito de Cambo* (1967), *Pette Beretter* (1973), *Ximena* (1979) eta *Iparragirre* (1980). Bere lanari esker, Zuberoako antzerki zaharra (pastorala) ezagutu eta miresten dugu Euskal Herri osoan. Horrez gain, Zuberoako ohiko antzerki zaharra gaztetu zuen, espazioan eta denboran hurbileko heroiak hautatu –Euskal Herriko gizon handiak– eta herri-gaiak jarri baitzituen.

Hori horrela izanda ere, saio honetan, batik bat, kanta-egile, kantari, xirulari eta musikari moduan egindako sormen-lanari erreparatuko diogu. Gazterik hasi zen kantatzen, xirula jotzen ikasten eta musikarekin harreman estuan bizitzen. (Davant 2004: 3-4 or.). Dohain aparta izan omen zuen: ahots ederra eta belarri oso ona, musika irakurtzen ez bazekien ere. Zuberoako tradizioari oso lotutako herri-poeta izan da (kantu berrien egile eta 200 abesti baino gehiagoren sortzaile); melodia ondu, eta, gero, abestu egiten zituen kantak. Horien artean, *Maitasun-kanta miresgarria*, *Goiñan argi bastian*, *Sorlekura itzultzia*, *Amal*, *Ai zer plazera...* abestiak. Maisua izan zen hitz politak aurkitzen, eta berak asmatutako doinu sinple eta goxoarekin testuan ondo ezkontzen (Davant 2004: 13 or.). Gaur egun, kantok eta melodiok Euskal Herri osora hedatu dira, eta oso ezagunak dira; hots, oso sartuta daude jendearen bihotzetan. Herriak hain bereak ditu kanta horietako batzuk, non ahaztu egin duen egilea nor den ere. Horixe gertatu zaio, hain zuzen, *Agur Xuberoa!* kanta hunkigarriari.

Sortzaile honek egindako beste bi ekarpen ere nabarmendu beharrean gaude: batetik, *errepika leloa* erabili zuen, euskal kantagintza zaharrean gutxi agertzen dena; bere ildotik, asko hedatu da eta kanta berriaren sortzaileei esker dugu euskal kantagintzan (Davant 2004: 13-16 or.). Bestetik, euskal kanta sartu zuen berak idatzitako pastoraletan, zati baliotsuenean, gainera: sarritan, hiltzera doan heroiaren azken kanta izaten da.



Horietan agertzen da *Etxahun Iruri* herri-poeta, sentimenduz betetako herri-poeta (Davant 2004: 19-20 or.).

Euskal Kantagintza Berria, 60ko hamarkadan itxura hartuz joan zen kultura-adierazpena, oso arduratuta egon zen hasiera-hasieratik euskal nortasun kulturalaren berreskurapenarekin (Lete 1977-4: 16-17). 60ko hamarkadaren hasieran, Pizkunde-giroan, mugimendu hori nazio-arazoari lotuta agertu zen sortze beretik. Michel Labeguerie-k kaleratu zuen lehen diskoa 1963an. Ez zen garaiko modako musika, euskal nazionalismoaren, eta kulturaren berriztatze eta berpizkundearen mugimendua baizik. Ondoren, 1966an Ez Dok Amairu taldea etorri zen, eta gero beste hainbat talde, gaur arte.

Ildo horretatik, kantagintza izan zen ardatz nagusia, Euskal Herrian 60ko hamarkadan indartu zen identitate nazionala birsortzeko. Izan ere, musikaren bidez eta abestien bidez, euskara bera eta euskal identitatea zabal zitekeela sentitu zuten: kohesio soziala eta nazionala indartzeko modua eta bidea ere bazen. Hori horrela izanik, agerian utzi nahi dugu abestia tresna indartsua izan zela eta sekulako eragina izan zuela diskurtso politikoaren inguruan sortu ziren identitate-kategoriak zabaltzeko eta transmititzeko. Garai horretatik datorkion esanahi sozialari eta politikoari gaur egun ere eusten zaio abestietan. Era horretan, guk aintzat hartu ditugun abesti batzuetan, gure kontzientziatik irudikari kolektibora joan gara. Imaginario hori sinboloekin eraikitzen da, eta sinbolo horietan eredu mitikoak, herriaren gertaera historikoak gorde eta zabaltzen dituztenak, agertzen dira (Biosca i Llahí: 1, 5, 7, 8).

Manuel Vazquez Montalbán ere mintzatu zen kantagintzak izan dezakeen eraginaren inguruan (Ornoz 2000: 22-23). Berak zioenez, hainbat alderdik eman zioten kantagintzari eragin-indarra: **1.** Testua laburra eta oroiteraza izatea; **2.** Musikaren bitartez, giza sentibilitatera eta emotibitatera heltzea; **3.** Komunikatzeko erraza izatea, bere egitura sinpleari esker; **4.** Kantariaren beraren izaerak, karismak, eman diezaiokeen babesa.

Horrekin lotuta, guk 60ko eta 70eko hamarkadetako irratia ere aipatu nahi dugu. Hauxe da, hain zuzen, argitu gura duguna: garai horretan, Euskal Kantagintza Berriaren eragile izan zen ala ez; eta eragile izan bazen, zenbateko eragina izan zuen mugimendu horren zabalkundean. Hari beretik, urte haietan, Loiolako Herri Irratiaren jarduna nabarmendu behar dugu hemen, ezinbestean. Karmelo Otaegik, urte askotan Loiolako

Herri Irratiko ahotsa izan zenak, zera dio: “Loiola irratiak bi helburu zituen hasi zenean – 1961ean irratiaren sorrera–. Elizaren esku zegoen eta Elizak zertarako nahi zuen irrati bat nabarmena zen: kristautasunaren mezua etxe guztietara zabaltzeko. Baina beste helburu batzuekin jantzi behar zela hori ikusi zen, gure irratiak Euskal Herria osatzen lagundu behar zuela, herriaren nortasuna sendotzen. Frankismoaren urteak ziren, eta euskararen bidez saiatu ginen horretan, nahiz eta oztopo handiak genituen euskaraz aritzeko. Euskara zabalduz joan ginen pixkanaka, eta ausartagoak izanez. Albisteak ematea, adibidez, debekatuta genuen, –zentsura–, baina tranpa egitera ausartu ginen: hemen ez badigute uzten, beste hartan egingo dugu. (...) Kultur arloko gaiez baliaturik –(gainditzen genuen zentsura)–. Kultura folklore gisara hartzen zuten agintariek, eta gai horietan bakarrik genuen euskaraz egiterik.” (Agirre, P. 2008: 10).

Jose Mari Iriondo irrati sortu, eta gutxira hasi zen lanean Loiolako Herri Irratian; musikaren ardura zeukan oraindik oso disko gutxi zeuden urte horietan. Agerian jarri behar dugu Euskal Kantagintza Berria oraindik bere lehen urratsak ematen ziharduenean berak egin zuen ahalegina kantari berrien lanak irratian bertan grabatu, eta irrati bidez zabaltzeko. Euskal gazteriak ezagut zitzan nahi zuen, euskal kanten premia larria ikusi baitzuen: bide-urratzailea izan zen. Halaxe aitortu digu berak: “Ni Ez Dok Amairun sartuta neuela, eta (...) euskaraz kantatzen zerbait egiteko dantzalekuetan eta batez ere gaztiari begira, behar gorria ikusten nuen, eta horregatik ni itsu-itsuan sartu nintzan irratian, Loiolako Herri Irratian, euskal kantarien mugimendu hori bultzatuz. Hasi Soroak laukoarekin, eta gero Michel Labeguerie, Benito, Lurdes, Mikel Laboaren disko txiki hura eta kantaldiak eta abar (...)” (Iriondo 2008: 1.09-1.19 min./001 pista grabaketan).

Esaterako, giro horretan grabatu zituen Loiolako Herri Irratian Lourdes Iriondoren honako abesti hauek: *Abesten dizut, jauna; Haurra seaskan; Arren jauna; Amatxo laztana*. Aizarnazabaleko jaietan kantatzen entzun, eta hurrengo egunerako zita egin zuten (1964-05-07). Horrelakoxeak izan ziren hasierako urteak.

Alabaina, bera oso kritikoa da irratiak, oro har, Euskal Kantagintza Berriari eskaini zioten laguntzarekin. Bere hitzetan, maila batean bakarrik izan zen erabakigarria haien jarduna; izan ere, beste irratietan, bai Madrileko irratietan (Radio Nazionalea, Radio San Sebastián, La Voz de Guipúzcoa), bai Donostiako Herri Irratian, Arrate Irratian eta Segura Irratian kantariok ez zuten oihartzun handirik eduki; alderantziz, oso aurka egon ziren hasierako urte horietan. Berak aitortzen duen moduan, Madrileko irratiarentzat

kantarion lana “aldeanada bat zan” (Iriondo 2008: 1.36 min.-1.39min./001 pista grabaketan).

Loiolako Herri Irratia kenduta, aipatu irratiek ez zuten mugimendu hori babestu 1976ra arte. Urte horretan, 24 Ordu Euskaraz Jaialdia ospatu zen, eta horrek buelta eman zion egoerari. Halaxe zehaztu digu Iriondok: “(...) eta gero gurdi horretara, euskal kantaren gurdi horretara sartu ziran irratia ere, hala nola, Donostiako Herri Irratia. Lehenengotik ez zuen sartu nahi izan; eta ez Segurak, ez Arratek ez zuten gurdi horretan sartu nahi izan; (...) Nik eskusiba neukan horretan; (...) 1976an, 24 Ordu Euskaraz egin zirenean, orduan mundu guztia erotu zan, ordurarte oposizio handia izan zan eta batez ere horregatik, egiten ziren grabazioak ere sinpleak ziralako, gitarra batekin eta zer handirik gabe (...)” (Iriondo 2008: 2.00 min-2.58 min./001 pista grabazioan).

## 2. Atala: 60ko hamarkada

---

## 1. Giro sozio-politiko

60ko hamarkadan, aire berriak zebiltzan munduan, ikuspegi berriak: Vatikanoko II. Kontzilioaren amaiera, Vietnamgo gerraren aurkako manifestazioak, 68ko Maiatza, Pragako Udaberria.... Gurean ere, nahiz eta Frankismo garaian bete-betean egon, aldaketa garaia izan zen: batetik, ETaren sorrera, lehen atentatuak (68-69), Burgosko Prozesua...; bestetik, kultura-munduan ere urte garrantzitsuak izan ziren: *Quosque tandem* (J. Oteiza *Harri eta herri* (G. Aresti, 1964), Durangoko azokaren lehen edizioa (1965), ikastolen mugimenduaren hasiera, euskara estandar idatzi bat egituratzeko lehen urratsak (Baiona, 1964; Arantzazu, 1968)...

Aldaketa horiek isla izan zuten kantagintza berri batean; horrela, garaiko gizarteak –“askatasun oihuaren” gizarteak– kantautoreen lanetan aurkitu zuen bere adierazpidea. Mundu-mailan, zenbait herrialdetan, bide berri horren haziak agertu ziren: Argentinan, Atahualpa Yupanqui; Txilen, Violeta Parra, Victor Jara edo Quilapayún taldea; Amerikako Estatu Batuetan, Bob Dylan, Pete Seeger, Joan Baez edo Simon and Garfunkel; Ingalaterran, Tommy Steel edo The Beatles; Frantzia, Johnny Halliday edo Jacques Brel, Leo Ferré eta George Brassens; Italian, Adriano Celentano edo Doménico Modugno; Espainian, Dúo Dinámico bikotea eta José Guardiola.

Une horretan, gainera, Estatuko eskualde batzuetan, berpizkunde kulturala (eta zenbaitetan linguistikoa) bultzatzen zuten taldeak sortu ziren, indarrean zegoen erregimen frankistaren aurka. Mugimendu horien artean, aitzindaria *Nova Canço* izan zen (1961, abendua: lehen aurkezpen publikoa). Ez Dok Amairu euskal taldea denboran bigarrena izan zen, 1965ean biltzen hasi ziren, eta 1966an azaldu ziren lehen aldiz jendaurrean. Ondoren, 1968. urtearen inguruan, *Canción del Pueblo* deitu zutena sortu zen Madrilen, gaztelaniaz egindako kantagintza berriaren abiagune bezala. Azkenik, 1969an, *Voces Ceibes* sortu zen Galizian.

## 2. Aurreko egoera / Kantagintza Berria

Kantagintza Berria mugarririk izan zen, eta zenbait aldaketa ekarri zituen kantagintza tradizionalarekiko. Biak konparatzean, honako faktore hauek izango ditugu kontuan: gaiak, irudia, formazioa.

**Gaiak.** XIX. mende bukaeratik Gerra Zibilera arte –eta baita ondoren ere– kantutegi tradizionala izan zen nagusi: R. M. Azkue, Aita Donostia, Sallaberry, Riezu eta Manterolaren kantutegiak; baita Usandizaga, Guridi eta Sorozabalen tankerako musikari klasikoen lanak ere. Kantagintza Berriarekin, ostera, askatasun-aireak heldu ziren: arazoan aurrean, askatasun-mezua zabaldu zen munduan. Mugimendu horrek mugak hautsi nahi izan zituen, munduko lurralde zapalduak kantatuz.

**Irudia.** Aurreko kantagintzan, koruak, zortzikoteak, tenorino eta opera-kantariak genituen. Kantagintza Berriak, berriz, kantautorearen irudia ekarri zuen; taldeetan abesteko ohituraren aurrean, bakardadearen aroa hasi zen: kantautorea bakarrik agertokian, gitarra akustikoa eskuetan.

**Formazioa.** Aurreko aldikoekin erkatuta, Kantagintza Berriko abeslariak kontserbatorioan ikasi gabekoak ziren gehienetan, musika-ikasketa klasikorik gabeak.

### 3. Kantautorea: definizioa

Esan bezala, kantautoreen aroa zabaldu zen, baina, zer da kantautorea izatea? Hitzari erreparatuz gero, kantari izateaz gain, autorearen ere izatea, baina, zeren autorearen? Letren autorearen, musikarena edo biena. Hortaz, aurrez aurre legokeen izendapena “interprete” litzateke (berek ez diren sorkarien interprete gisa ulertuta).

Juan Mari Lekuonak honela definitu zuen kantautorea (Ornoz 2000: 26):

“Kantautoreari eskatzen zaizkion baldintzak, hiru eratakoak dira: poetaren hariakoak, musikariaren alorrekoak eta kantariaren mailakoak. Letraren aldetik, nortasun poetikoa eskatzen zaio, hau da, gaurko joeretako poeta izateaz gainera, gure poesia idatzian ahots propio bat izan behar du. Gehiago orandik: kantaldiak gehienetan herriaren aurrean egiten direnez gero, kantautoreari herri poetaren dimentsioa eskatzen zaio, koplariaren haritik. Gero, musikari gagozkiolarik kantautoreak musika gaitan eskolatua izan behar du, hein batean behintzat. Berez musika sena ukateaz gainera, ezin daiteke arlote izan konposizioan eta ejekuzioan. Gutenez melodien sortzailea behar du izan, musika herrikoien arabera; eta musika tresnaren aldetik, berriz, zer gutiago melodiari akorde elementalez lagun egitea baino? Eta azkenik, kantatzeko trebetasuna, dela ezta, dela deklamazioz, dela espresakeraren musikaltasun osoz”.

#### 4. Kantagintza Berriaren aitzindariak: Nemesio Etxaniz, Michel Labéguerie

Nemesio Etxaniz apaiz azkoitiarrak *Kanta kantari* izeneko kantutegia kaleratu zuen 1951n. Hitzaurrean, Etxaniz kezkatu azaldu zen kanpotik sartzen hasiak ziren erdaldunhaize berrien aurrean; horregatik, euskal kantagintza berri bat sortu nahi izan zuen, doinu zaharrei letra berria jarritz edo euskal kanta berriak sortuz. N. Etxaniz apaizaren kantutegiak ez zuen Ez Dok Amairu-n eraginik izan, baina Etxaniz bera, taldea sortu zenean, tartean zegoen.

Michel Labéguerie Uztaritzen jaio zen, Kanboko mediku eta alkate izan zen, eta Frantziako Asanblea Nazionaleko diputatu. Aisialdian, gogoko zuen musika sortzea, eta joera berriko lehen abestiak sortu zituen euskaraz.

Etxanizi ez bezala, Labéguerieri eragin erabakigarria aitortu behar zaio Euskal Kantagintza Berriaren sorreran. 1963ko apirilean, Labégueriren lehen diskoa argitaratu zen: *Aurtxo aurtxoa*, *Primaderako liliak*, *Gudari euskaldunen kantua* eta *Bakearen urtxoa*. Urte bereko urrian, bigarren disko txikia argitaratu zen: *Gazteri berria*, *Astoa Balaan*, *Gatua Pitxitxi*, *Ezkeilaren kantua*. Disko horiek eragin iraultzailea izan zuten. Honela idatzi zuen Xabier Letek (*Jakin* 4, 1977: 18):

“Labéguerie-ren diskoek, batez ere lehenak, izugarritzko garrantzia izan zuten euskal kanta herrikoiairen estilo aldaketan: gitarra soilez lagunduriko kantak baitziren, ahots partikular bezain apal eta arruntaz kantaturikoak, molde komertzialei zegozkien ameneramendu eta sofistikazio guztietatik urrutit”.

Labéguerieren kantuek mezu berria zuten, ez zuten dagoeneko etxea edo baserria aipatzen. Irudia ere berria zen: eszenarioan bakarrik, gitarrarekin, *chansonier* frantsesen estetikan.

Ez Dok Amairu sortu aurretik, aipatuez gainera (Etxaniz, Labéguerie), beste zenbait talde eta bakarlari ere bazeuden. Taldeen artean: Los Contrapuntos eta Soroak. Bakarlarien artean: Jose Antonio Villar, nazioartean famatutako kantak abesten zituena, Julen eta Juan Mari Lekuonak itzuliak; eta, geroago Ez Dok Amairukoak izango ziren Mikel Laboa eta Julen Lekuona.

## 5. Ez Dok Amairu taldea

1964ko abuztutik 1965eko udazkenera arte, Donostian egindako egonaldian, Mikel Laboa kontaktua egiten hasi zen *Nova Cançóren* antzeko zerbaiteko ideiarekin. Harremanetan jarri zen Benito Lertxundirekin, Lourdes Iriondorekin, Julen Lekuonarekin, Joxean Artzerekin...

1965. urtearen bukaeran, Oteizarengana jo zuten, eta orduan jarri zion hark taldeari izena. Ez Dok Amairu izendapenak hamairu zenbakiaren malefizioa hautsi nahi izan zuen, euskal kultura garaikidearen malefizioa: aurrera jo ezina.

### a. Partaideak

Jende asko ibili zen sartu-irtenean taldean, hona hemen izen batzuk: Julen Lekuona, J. A. Villar, Irigarai, Zabala eta Artze anaiak, Juan Mingo, Felix Sarasola, Kepa Garbizu, Benito Lertxundi, Lourdes Iriondo, Luis Bandres, Jean Paul Arregi... eta, nola ez, Mikel Laboa eta, geroxeago, Xabier Lete.---

### b. Helburuak

Bi helburu nagusi zituzten: Gerra Zibilak eta, ondoren, diktadurak zapuztutako euskal nortasun kulturala berreskuratzea, batetik, eta, horretarako, kantutegi tradizionala aztertu eta biziberritu nahi zuten; eta, bestetik, kanta berriak sortzea, garaiko kezkek agertzeko. Dударik gabe, garaiko kontzientziarekin konprometituta egon zen kantagintza berri horrek beste ezaugarri oinarrizko bat ere izan zuen: kalitatea; kalitatezko kantagintza garaikide edo berria sortu nahi zuten, hortaz.

Baina proiektu hau asmo zabalago baten barruan zegoen. Ezin da ahaztu 1963an Jorge Oteizak *Quosque tandem...! Interpretación estética del alma vasca* argitaratu zuela eta Arestirentzat liburuaren helburua honakoa zela: “Euskaldunak gaindi dezala bere esparru “baserritarra” ta gaurko muin eta mami dinamikoze bete”. (Oronoz 2000: 44)

Euskal kultura berpiztu nahi zuen Oteizak. Kultura-frontea deitzen zuena sortzen saiatu zen; denek batera lan egin beharra zeukaten berpizkundearen alde. Oteizaren asmoek ez zuten berak nahi bezala aurrera egin, baina euskal kultura



garaikidearen hainbat artista eta intelektual berreskuratu zituen bere ideia iraultzaileekin, eta zenbait talde jarri ziren lanean garai horietan: Argia dantzataldea, Jarrai antzerki-taldea eta, noski, Ez Dok Amairu kantari-taldea.

Talde horien guztien helburua berreskurapena izan arren, eta maila ideologiko edo teorikoan adostasuna egon arren, maila praktikoan, ekintzak antolatzeko orduan, bakoitzak bere arloa lantzen zuen; ez zuten lan komunik egiten. Hori bai, elkar topatzeko aukera izaten zuten aste edo hamabostaldi kulturaletan.

### c. **Bidelagunak: idatzizko komunikabideak, irratiak, kantaldiak eta diskoetxeak**

Euskal Kantagintza Berriaren hedapenean eragina izan zuten idatzizko komunikabideek eta irratiak, alde batetik, eta kantaldi, jaialdi eta diskoetxeek, bestetik.

**Komunikabide idatzien artean,** *Zeruko Argia* eta *Anaitasuna* aldizkariak aipatu behar dira Euskal Kantagintza Berriaren bultzatzaile gisa. Gainerako egunkari, astekari eta aldizkari nagusiak gaztelaniazkoak ziren, ofizialak eta erregimenaren interesen aldekoak. Dena den, hedabide ofizial horietan baziren kantagintzaren fenomenoaren aldekoak: *La Voz de España*, *Unidad*. Okerrago tratatzen zituzten egunkariak ere baziren: *El Diario Vasco*, *El Correo*.

**Irratien artean,** aurrena, Joxe Mari Iriondo zegoeneko Loiolako Herri Irratia aipatu behar da; denek aitortu dute irrati horrek adina ez zuela beste inork egin. Horrez gain, aipatzekoak dira honako hauek ere: Donostiako josulagunen Herri Irratia eta Bilboko, Arrate, Segura, Beruete, Tolosa eta R. Club del Norte. Bestalde, aipatzekoak dira La Voz de Guipuzcoako Albino Mallo, eta Radio Vitoriako Jose Mari Sedano ere. Jose Ramon Belokik *Jakinen* esan bezala, “Irratirik gabe, nekez pentsa zitekeen Euskal Kanta Berriak aurrera egitea”. (Oronoz 2000: 60)

Festak, kultura-asteak, ikastolen alde dirua ateratzea, presoen alde eta atzerriratuen alde egitea... arrazoi ugari zirela bide, **kantaldi** asko eta asko egin ziren Euskal Herrian. Horrek bazeuzkan alderdi positibo eta negatiboak: batetik,

garai hartan jendea biltzeko modurik ez zegoenez, elkartzeko aitzakia izan ziren; baina, bestalde, kantariak nekatzen ziren, eta ez zitzairen astirik ematen beren lana behar bezala garatzeko.

Garai haietan, gainera, **jaialdi** gutxi zeuden; hasiera batean, La Voz de Españak edo La Voz de Guipuzcoak antolatzen zituztenak soilik; 1965ean, Festival de la Canción Vascaren 1. edizioa antolatu zen. Horrez gain, herri edo herrialdeetan ospatzen zirenak zeuden, xumeagoak: Abrakoa, Eibarkoa.

Garai hartan, Euskal Kantagintza Berriaren hedapenean bi **diskoetxe** izan ziren Euskal Herrian: CINSA eta Herri Gogo. Dena den, kantari goiztiarrenek beste diskoetxe batzuetan grabatu behar izan zuten: Belterren (L. Iriondok), Discos Gudarín (J. Lekuonak), Iparraldeko Goiztirin (M. Laboak).

CINSA 1957an sortu zen, nahiko goiz, eta, hasieran, CINSAk argitaratu zizkion diskoak Ez Dok Amairu taldeari. Herri Gogo 1968an sortu zen, Ez Dok Amairuren eskutik, grabazioen kalitatea hobetu nahian. Dena dela, euskal diskogintza, oro har, eta Euskal Kantagintza Berriko diskogintza, bereziki, txikia izan zen; Jose Ramon Belokiri, adibidez, miseria iruditzen zaio: kontuan izan behar dugu 1977ra arte kaleratutako diskoak zenbaturik 220 disko bakarrik argitaratu zirela.

#### **d. Zentsura**

Zentsura modu zuzenagoan igarri zen kantaldi, jaialdi eta diskoetxeetan, ez hainbeste komunikabide idatzietan eta irratietan.

Kanta guztiek behar zuten zentsoreen baimena, eta denak bidali behar izaten ziren zentsurara. Batzuetan, kantaldi batean abesteko baimena lortzen zen, baina ez grabatzeko. Beste batzuetan, debekatu egiten zuten denbora luzez probintzia batean abestea; adibidez, 1969 aldera, Lertxundi, Laboa, Iriondo eta Lekuonari hiru urteko debekua jarri zien Gipuzkoako gobernadore zibilak; ondoren, Bizkaikoak bost urteko debekua ezarri zien.

## e. **Politika**

Euskal Kantagintza Berriari ez zitzaion *politiko* deitu jarrera politiko zehatz bat izan zuelako, oro har ez baitzen partidista izan. *Politiko* hitzak adierazten zuen orduko kantariak herrira iristeko zuten gogoia. Mututu, lehortu egin zuen diktadurak herriaren ahotsa, eta kantariak berreskuratu zuten, haien eztarrietan entzunaraziz.

Ezin daiteke esan, ostera, kantarien letretan, kantetan, ideologia partidista jakinik aurkitzen zenik. Letek zioen bezala “Politika, abertzalegoa organiza zezakeen politika baten beharra gertakari guztien muinean zegoen, noski, eta hori kantetan ere nabari zen. Baina ez dut uste kantetan opzio politiko berezi eta taxuturik ageri zenik. Lehen kantariak ez ziren, inola ere, programa politiko batetatik abiatu, eta ez zuten inola ere programa hura kantuz zehazteko pretensorik izan.” (*Jakin* 4, 1977: 18)

Dena den, Ez Dok Amairuk ideologia abertzalea zuen: Euskal Herriaren askatasun politikoa defendatzen zuen. Baina defentsa hori orokorrean egiten zuen, partidu jakinik ordezkatu gabe, eta behin baino gehiagotan argi utziz haien askatasuna. Ezin da ahaztu, halere, orduko gizartean askatasunari abestea eta euskaraz abestea politika egitea zela.

Ondorengo urteetan, 1975etik aurrera, gizartea eraldatu zen, eta hari eratxikirik zeuden kantariak ere bai. Belen Oronozek “banderen garaia” deitu duena heldu zen: oihuak, kontsignak, erraxkeria, “aberi” hitzaren manipulazioa... Zenbait kantarik Euskal Kantagintza Berriaren hasierako kantautoreen ereduari jarraitu zion: gitarra eta ahotsa; baina ez zen lehengo egoera, ez ziren lehengo aldarrikapenak; horietan, bai, interes politiko-partidistak usaintzen ziren.

Aipatutako giro hori islatu zuten Joxean Artzek zioenak eta X. Leteren *Aberria* kantak (Ornoz 2000: 75):

Joxean Artze: “Cuando poco a poco fue abriéndose el puño y se podía empezar a cantar con más tranquilidad, se utilizó el movimiento de la canción vasca con fines totalmente ajenos a lo que puede ser la canción en sí, de mutuo acuerdo implícito entre cantantes y público, la gente iba a los festivales a ver una

ikurriña ondeando allí, a gritar Gora Euskadi Askatuta y cosas de esas”. (Oronoz 2000: 75)

Xabier Leteren *Aberria* kanta:

Aberria ez dira ikurrin politak  
abesti gogorrek, askatasun-hitzak  
aberrria ez dira kate eta giltzak,  
baizik elkarganako maitasun ekintzak.

## f. Lortutakoa

Ez Dok Amairu taldeak lortutako fruituen artean, honako hauek aipatu behar dira:

- **Kanta herrikoi asko berreskuratu zuten:** *Goizuetan, Haika mutil, Uxo txuria...* Jendeari kanta tradizionalarekiko maitasuna kutsatu zioten. Haien barruko sentimendurik indartsuenekin identifikatzen zen kanta multzo ederra berreskuratu zuten.
- Ez Dok Amairu taldeak, gainera, **profesionalizazioaren kontzeptua ekarri zuen**, baldintza egokiak exijituz eta artistaren lana errebindikatuz. Profesionalizazioari garrantzi handia eman zioten, honako zita hauetan ikus daitekeen bezala:

X. Lete: “Artistak profesionala behar du izan; ez profesionala dirua irabazten, lan egiten baino, eta bere lana besteei erakutsi eta irakasten. Amateurtasuna sentimendu onuragarria da eta beharrezkoa; baina horren bidea ez da luzea izaten, eta ez da inoiz gai batean sakontzen” (Oronoz 2000: 85)

J. Lekuona: “Nuestro proyecto inmediato es llegar a profesionalizarnos. Si aceptamos que la canción es un medio más en la lucha por la concienciación de nuestro pueblo, hay que utilizarla a pleno rendimiento (...)” (Oronoz 2000: 85)

L. Iriondo: “ (...) Baiñan Euskalherriko abeslari, poeta, idazle, pintore, musiku eta gañerako artista guziak, bere bizitza “arte” egiñaz jostatzen pasatzera beartuak egongo ote dia, beren herrian jateko aiña ere eskuratzen etzaielako? Gure herriak bizirik eta sendo mendeetan zear iraun dezala nahi baldin badegu, garaia

da oraintxe milla jostaketa polit eta txoro bazterrera utzi eta egitazko laguntza praktiku eta zabal bat eskeintzekoa. (...)” (Ornoz 2000: 86)

Belen Oronozen ustez, profesionalizazioa aurrera eramatean, bi oztopo nagusi aurkitu zituen taldeak: jendea ez zegoen ordaintzen ohituta, batetik, eta antolatzaileek beti izaten zuten diru-helbururen bat, bestetik. Hau da, faktore psikologikoak eta ideologikoak ziren tartean. Faktore psikologikoa “euskaldunen diruarekiko eskizofrenia” litzateke; hots, kausa edo helburu “nobleak” bitarteko zirenean, dirua zikina zen, ez zen kobratu behar, ezta aipatu ere. Bizitza pribatuan edo negozioetan dirua erabiltzea, ostera, zilegi zen. Faktore ideologikoa “ezkertiarrek diruari egindako arbuioarekin” lotua zegoen: kantaldiaren antolatzaileak “ezkertiarrek” zirenean, bazekiten ziur ez zutela kobratuko, helburu soziala zuen kantaldiaren truke kobratzea burgeskeria baitzen.

- **Demostratu zuten euskaraz kantatzea posible zela**, Euskal Kantagintza Berriak entzuleak izan zitzaizkela, musikagintzak eskatzen dituen alor guztiak (sormena, produkzioa eta zabalkundea) beteko zituen jende tekniko bazegoela. Horrela, kanta berri mordoska eskaini zion taldeak entzulegoari: *Egun da Santi Mamiña, Apur dezagun katea, Loretxoa, Gure bide galduak, Itsasoan urak handi dire, Ez gaude konforme, Lore gorrien balada...*
- Dena den, **talde gisa, publikoari eskainitako fruiturik umotuena Baga, biga, higa sentikaria izan zen**. Ikuskizun hori taldearen batasun-fruitua izan zen, taldeak estetikaren arloan bide berriak urratu nahi izatearen ondorio. 1970eko abuztuan estreinatu zen Portugaleten, eta 1972ra bitartean iraun zuen, taldea desegin arte.

Sentikariari izena Laboaren *Lekeitio 2* diskotik zetorkion; disko horretan, Laboak On Manuel Lekuonaren *Ahozko Euskal Literatura* liburutik bi dekorazio-olerki jaso eta batu zituen, tradizioa musikatuz; emaitza *Baga, biga higa* kanta ezaguna izan zen.

Edukiari dagokionez, garaiko gizartearen kezka, arazoak islatzen zituen Sentikariak: askatasuna, errepresioa, abertzaletasuna, euskara...

Formari dagokionez, ostera, hasierako egitura zeharo aldatu zuten: eszenatokian jada ez ziren lehengo moduan azaltzen, bakoitzak bere gitarra hartu

eta txandaka, zegokion errepertorioa abestuz; ez ziren norbanako multzo bat, batasuna ziren, talde bat: elkarrekin dantzatzen zuten Baztango dantza hasieran, eta, bukaeran, elkarrekin abesten edo errezitatzen zuten; elkarlana zen hura, talde-izaera indartzen zuen Sentikariak.

Sentikaria izenarekin adierazten zuten ikus-entzuleen sentimenduetan eragin nahi zutela, edo, agian, sentimenduak igorri nahi zituztela, edo biak.

Sentikaria Euskal Herriko herri eta hiriburuetan aurkeztu zuten, baina baita hemendik kanpo ere.

### **g. Funtzioak taldean**

Joera naturalen arabera banatzen ziren egitekoak. Horrela, taldeko zuzendari artistikoa Joxean Artze zen –anaiarekin txalaparta jo, poemak errezitatu eta bestelakoak ere egiten zituen–; antolatzaile-zuzendaria, Joxe A. Irigarai; Nekane Oiarbide jaiak antolatzeaz, administrazioaz eta harreman publikoez arduratzen zen; eta Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Lourdes Iriondo eta Xabier Lete kantautoreak ziren, batez ere.

### **h. Eragin musikalak**

Aipatzekoak dira honako eragin musikal hauek:

- Gerra ondoko kantagintza frantsesa: G. Brassens, J. Brel, L. Ferré...
- Ipar Amerikako folk-a: Bob Dylan, Pete Seeger, Joan Baez...
- Hego Amerikako kantagintza berri eta konprometitua: Atahualpa Yupanqui, Violeta Parra, Victor Jara...
- Kataluniako kantagintza: Raimon...

Argi dago, dena den, bakoitzak bere gustu eta joerak zituela; esaterako, hasieran, Benitok Elvis, Dylan... zituen gogoko; Lourdesek Joan Baezen ildotik jotzen omen zuen; Juleni eta Xabierri kantautore frantsesak asko gustatzen zitzaizkien; Mikelek Atahualpa Yupanqui, Violeta Parra, Brassens, musika klasikoa... zituen gustuko.

## i. Ez Dok Amairuren itzala

Berehala sortu ziren jarraitzaileak:

**Gipuzkoan:** Urretxindorrek, Ameslariak, Erlak, Itzal Urdinak, Naikari, Oldarkoi, Idoia Garmendia... Geroago: Ibai Rekondo, Ion Bergaretxe, Urko, Izukaitz, Koxka...

**Bizkaian:** Maite Idirin, Bittor Egurrola, Argoitia anai-arrebak, Estitxu, Saenz anaiak... Geroago: Ohiartzunak, Gontzal Mendibil, Xeberri, Lupe, J. Etxebarria...

**Araban:** Gorka Knörr, Patxi Billamor...

**Nafarroan:** Josu Goya, Fermin Valencia... Geroago: Ortzadar...

**Iparraldean:** Peio eta Pantxoa, Etxamendi eta Larralde, Borda, Sarasola, Manex Pagola... Geroago: Eneko Labéguerie, Errobi...

## j. Taldea desegitea

1971ko urrian hasi zen Ez Dok Amairuren barne-krisia, eta 1972ko Eguberrietan desegin zen taldea; 15 hilabete inguru ibili omen ziren bileretan, irtenbide bat aurkitu nahian.

Desegite horren arrazoi nagusia politikoa izan zen. Letek dioenez, “Euskal Herrian momentu horretan izugarrizko zatiketa zegoen abertzaleen artean” eta, askotan, kantaldi bat ematera ailegatzzen zirenean, honelakoak entzun behar izaten zituzten: “Gaur ere kantaldi epel bat egingo duzue?”. Kantaren funtzionaltasun politikoa aldarrikatzen zen zenbait sektoretatik, kantariari autonomia estetiko, taktiko eta espresibo guztia ukatuz.

Bi ikuspegiak –taldearen askatasuna, batetik, eta zenbait ideiarekin aldarrikapena, bestetik– uztartzea ez zen erraza izan. Azkenean, kantarien arteko desberdintasun ideologikoak nabarmenduz joan ziren. Leteren hitzetan, pluralismo anaikor aberasgarri bezain idealista batetik haustura nabarmen batera zeraman urratsa azkar bezain arinki eman zen. Ordutik aurrera, zenbaitzuen iritziz, kantari batzuk estetizista, chauvinista, burges ttipi eta folklorezale izango ziren; besteak, aldiz, aurrerakoi, proletarista eta desmitifikatzaile. Bi ikuspegi horien arteko tentsioak taldearen desegitea ekarri zuen.

Horrekin guztiarekin batera, gertaera puntual bat izan zen, eta hark jarri zuen azken zedarria. Sentikariaren bi album (bi disko handi) grabatuta zeuzkaten; kaleratzea besterik ez zen falta. Baina horri buruz hitz egiteko deitutako bilera batean, norbaitek ez zuen begi onez ikusi bi album horietatik bi kanta argitaratzea. Orduan, bozketa egin zen diskoak kaleratu edo ez erabakitzeko. Adostasuna erabatekoa ez zenez izan, azkenean, argitara ez ematea erabaki zuten. Diskoen kontu hori pauso bat gehiago izan zen amildegirantz, ordu arte pilatutako tentsioaren eztanda txiki bat.

Desegin ondoren, bi taldetan banatu ziren kantariak:

- Joxean Artze, Mikel Laboa, Jose Mari Zabala eta Jexux Artze bide batetik joan ziren, Jose Luis Zumeta pintorearen laguntzaz. Artista horiek *Ikimilikiliklik* ikus-entzutekoa sortu zuten, Sentikariaren antzera elementu estetikoak konbinatzen zituen espektakulua.
- Benito Lertxundik, Xabier Letek eta Lourdes Iriondok beste bide batetik jo zuten, eta, Iparraldeko jendearekin baturik, beste talde handi bat sortu zuten: Zazpiribai.



## 6. Diskografia

Abeslaria Taldea	Diskografia	Aho Bete Kanta	Diskoetxea Urtea	Estiloa
MIXEL LABEGUERIE	<i>Labeguerieren lau kanta</i>		Goiztiri. 1963	Kantautorea
	<i>Labeguerieren lau kanta n°2</i>	<i>Astoa Balaan</i>	Goiztiri. 1963	
MIKEL LABOA	<i>Azken n°1</i>	<i>Oi Pello Pello, Haurtxo txikia</i>	Goiztiri. 1964	Kantautorea
	<i>n°2</i>		Goiztiri. 1966	
	<i>Bertolt Brecht'en lau poema</i>		Goiztiri. 1969	
	<i>Mikel Laboa</i>	<i>Haika mutil</i>	Herri Gogoia. 1969	
JULEN LEKUONA	<i>Egia n° 1</i>		Discos Gudaria. 1965	Kantautorea
	<i>Egina n° 2</i>		Discos Gudaria. 1965	
	<i>Julen Lekuona</i>		CINSA. 1966	
	<i>Julen Lekuona</i>		EDIGSA. HG. 1968.	
LOURDES IRIONDO	<i>Lourdes Iriondo</i>		Belter. 1967	Kantautorea
	<i>Lourdes Iriondo</i>		Belter. 1967	
	<i>Kanta zabarrak</i>		Belter. 1968	
	<i>Lourdes Iriondo</i>	<i>Ez gaude konforme</i>	Belter. 1968	
	<i>Kanta zabarrak</i>		Belter. 1968	
	<i>Kanta zabarrak</i>		Belter. 1968	
	<i>Aur kantak</i>		EDIGSA-HG. 1969	
BENITO LERTXUNDI	<i>Benito Lertxundi</i>	<i>Loretsoa</i>	CINSA. 1967	Kantautorea
	<i>Benito Lertxundi</i>		CINSA. 1967	
	<i>Benito Lertxundi</i>		EDIGSA-HG. 1968	
	<i>Benito Lertxundi</i>		EDIGSA-HG. 1968	
	<i>Benito Lertxundi</i>		Herri Gogoia. 1969	
	<i>Benito Lertxundi</i>		Herri Gogoia. 1970	
ARGOITIA ANAI-ARREBAK	<i>Irene ta Andoni Argoitia</i>	<i>Ames ames</i>	CINSA. 1967	
URRETXINDORRAK	<i>Urretxindorrak</i>	<i>Aitorren bizkuntza zabarra</i>	CINSA. 1968	
	<i>Urretxindorrak</i>	<i>Neska zabarrak</i>	CINSA. 1970	
XABIER LETE	<i>Lau kanta</i>		EDIGSA-HG. 1968	Kantautorea
	<i>Xabier Lete</i>		EDIGSA-HG. 1969	
LOURDES ETA XABIER	<i>Lourdes eta Xabier</i>		EDIGSA-HG. 1969	Kantautoreak
ARTZE ANAIK	<i>Txalaparta saio bi</i>		EDIGSA-HG. 1968	

<b>Abeslaria Taldea</b>	<b>Diskografia</b>	<b>Aho Bete Kanta</b>	<b>Diskoetxea Urtea</b>	<b>Estiloa</b>
JOXE ANGEL IRIGARAI	<i>Joxe Angel Irigarai</i>		Herri gogoa. 1969	Kantautorea
ENARAK	<i>Enarak</i>		Discophon- Herri Gogoa. 1969	
OSKARBI	<i>Oskarbi</i>		Herri Gogoa. 1969	
	<i>Abesti zahar eta berriak gaur eguneko abestalde berri baten abotsean</i>		Herri Gogoa. 1970	
	<i>Oskarbi</i>		Herri Gogoa. 1971	
EZ DOK AMAIRU (TALDE BEZALA)	<i>Euskal kantari berri hautatuak</i>		Herri Gogoa. 1970	

### 3. Atala: 70eko hamarkada

---

## 1. Giro sozio-politikoa

70eko hamarkadan, munduan zeresan handia eman zuten honako hauek: *Watergate* eskandalua medio, Richard Nixon AEBko lehendakaritza uztera behartzeak; Vietnango gerra amaitzeak edota Lisboan Krabelinen Iraultza lehertzeak; Sobiet Batasuneko Bloke Komunistan, ahulezia-zantzuak nabariak ziren; munduko ekonomia petrolioaren krisi sakonak baldintzatzen zuen; teknologian, Microsoft eta Apple Computer-en sorrera.

Urte horiek aldaketa handikoak suertatu ziren Hego Euskal Herrian ere. Francoren heriotza dugu mugarrira. Hamarkada osoa ezegonkorra izan zen, bortizkeria dezentekoa: 1973an L. Carrero Blanco Espainiako presidentea hil zuen ETAk, eta hildako asko eragin hainbat atentatutan hurrengo urteetan; 1975ean, irailaren 27an, Francok, hil baino bi hilabete lehenago, bost heriotza-zigor ezarri zituen, nazioartean protesta ugari sortuz. Trantsizio-garaiak ere makina bat gorabehera ekarri zituen: irekiera politikoak ahalbidetu zuen ikurrina eta partidu politikoak legeztatzea (PC, Euskadiko Ezkerra, Herri Batasuna); gobernuaren amnistiarekin, odol-deliturik gabeko presoak kaleratuak izan ziren; Gernikako Estatutua onartu zen; Gasteizen (1976) eta Jurramendin gertakari odoltsuak eta istilutsuak bizi izan ziren; Lemoizko zentral nuklearra ez egiteko eta amnistia eskatzeko aldarrikapenak gizartean indar handia izan zuten.

Kultura-mundua ere ez zegoen lotan, eta euskararen aldeko ekimen ugari egon ziren. 1976an, 24 Orduak Euskaraz antolatu zen Donostian, eta 100.000 lagun bildu zituen. Bilbon, berriz, bi urte geroago, Bai Euskarari deitutako kanpainari amaiera emateko, 40.000 lagun elkartu ziren. Garai horretantxe onartu zen Euskaltzaindia era ofizialean. Halaber, hainbat kultura-ekimenek argia ikusi zuten: *Egin* eta *Deia* egunkari elebidunek, *Ob Euzkadi!* eta *Susa* literatura-aldizkariak, *Elkar* eta *Erein* argialetxeak; *Zeruko Argiak*, *Jakinek* edota *Anaitasunak* beren itxura eta mamia aldatu zuten, garai eta premia berrietara egokitzeko. Atxaga eta Saizarbitoria idazle entzutetsuek garai horretan idatzi zituzten euskal literaturan garai berri baten mugarri diren *Etiopia* eta *Ehun metro* lan berritzaileak.

## 2. Izar berriak kantagintzaren zeruan

Azter ditzagun, gainetik bada ere, hamarkada honetan euskal musikak bizi izan zituen aldaketak. Horretarako, euskal musikaren hedapenean zerikusia izan zuten hainbat

esparru jorratuko ditugu: komunikabideak, diskoak eta diskoetxeak, kantaldiak, abeslariak, ikuskizunak.

### **a. Komunikabideak**

Prentsan, hamarkada-hasierako urte haietan apenas egiten zen abeslari berrien aipamenik. Irratigintzan, berriz, Espainian bi aro bereizi behar dira, nahitaez. Hamarkada-hasieran, egoera latza zen, entzuleek atzerriko Radio Parisera, BBCra (Londres) edo Radio España Independientera jo behar izaten zuten, eta, noski, euskal musikaren arrastorik ez irрати horietan. Trantsizioan, Radio Nacionaleko monopolioa hautsi, eta albistegiak libre emititzen hasi ziren; musika hedatzeko, berriz, SER kateak *40 Principales* jarri zuen martxan, eta Urko izan zen irratsaio horretan agertzea lortu zuen lehen euskal abeslaria. Garai horretan, Jaime Iarrituk, Agerki kontratazio-agentziaren sortzaile izan zenak, euskal musika ikuspegi komertzialetik jorratzeko intuizioa izan zuen; euskaldunek euskal musika kontsumitzeaz gain, entzule erdaldunengana iristea ere funtsezkoa zen harentzat, eta horretarako komunikabideen lana, irraitena batez ere, behar-beharrezkoa zen. Horrela, lortu zuen Herri Irratian ez ezik, Bilboko SER irratian eta COPEn ere musika-saioak egitea. Telebistan, oster, Espainian nahiz Frantzian euskaraz abesten agertzea ezinezkoa zen.

### **b. Diskoak eta diskoetxeak**

Euskarazko diskogintzan, aurreko hamarkadan sortutako Herri Gogoa eta CINSA diskoetxeek gain, berriak agertu ziren Iparraldean nahiz Hegoaldean. Horren adibide garbia Ez Dok Amairukoek sortu zuten Artezi diskoetxea dugu (1973); hala ere, ordurako talde hori desagertuta zegoen. Artezi diskoetxearen helburua, 1980an desegin zen arte, alderdi teknikoa nahiz estetikoa zaintzea izan zen, eta, horretarako, neurri handiko LPak argitaratu zituzten –*singletik* LPra–: 1976ra arte argitaraturiko 220 diskoetatik 170 *singleak* izan ziren eta 50, berriz, LPak. (Amezaga 2005: 202-203). Diskoetxe horretan grabatu zuten, besteak beste, B. Lertxundik, X. Letek edota G. Knörr-ek. Artezik zigilu gisa funtzionatu zuen bitartean, bestalde, diskoak Euskal Herritik kanpo grabatzeak hainbat esames eragin zuen.

Euskal kulturgintzan industria indartsua lortu nahian, 1972an, Iparraldeko euskal kulturaren inguruko zenbait euskaltzalek –kantari, idazle, herritar– Elkar argitaletxea sortu zuten Ipar Euskal Herrian, aurrerago euskal kultura-produktuak sortzeko, banatzeko eta saltzeko enpresa-sare bat osatuko zuena. Elkar diskoetxearen sorrerarako, lehendabizi, Goiztiri argitaletxeko disko-produkzioa erosi zuten. Ondoren, Trantsizio hasieran, enpresa gisa dagoeneko, Hego Euskal Herrira egin zuten salto: behar-beharrezkotzat jo zuten euskal produktuak klandestinitatetik eta marginalismotik ateratzea. Geroago, hamarkada amaieran, Artezi eta Herri Gogoa diskoetxeen katalogoak eskuratu zituzten. Aipatutako hiru diskoetxe horiez gain, Xoxoa diskoetxea eta IZ estudioa ere garai hartan jarri ziren martxan. Durangoko Azokak, bere aldetik, erakusleihu paregabea izaten jarraitu zuen, euskal musika-ekoizpenak ezagutarazteko.---

### **c. Kantaldiak**

Euskal musikaren hedapenerako funtsezkoak izan ziren ia herri guztietan egiten ziren kantaldiak. Horien bidez, euskal herritartasunaren kontzientzia zabaldu zen: euskara eta euskal kultura. Denborarekin, kantaldi horiek gero eta esangura politiko handiagoa hartuz joan ziren, jarraian azalduko dugun bezala. Ekitaldi horiei honakoa aitortu behar zaie: euskal musikara jendea erakartzen jakin zuten, nahiz eta, harrigarria badirudi ere, gerta zitekeen entzule gehienak erdaldunak izatea.

Musikaren hedapenen horretan, plaza-taldeek –*orkestinek*– emandako urratsa oso lagungarria izan zen, garai hartan euskal kanta herrikoiak, atzerriko talde eta abeslari ezagunen moldaketak – Springsteen, Lou Reed, Pink Floyd...– eta kanta propioak euskaraz eskaintzen baitzituzten.

### **Abeslariak**

70eko hamarkadan, euren presentzia finkatu zuten kantari guztien zerrenda egitea oso luzea litzateke; beraz, abeslari garrantzitsuenen aipamena egingo dugu: A. Valverde, B. Lertxundi, E. Martikorena, G. Mendibil... Ez Dok Amairu desegitean, partaideek hainbat bide hartu zituzten, bakarka nahiz taldean, hainbat ikuskizun eta proiektu aurrera eramateko. Musikak zubi-lana egin zuen

Hegoaldearen eta Iparraldearen artean, eta, horren ondorioz, harremanak asko sendotu ziren.

#### **d. Ikuskizunak**

Ez Dok Amairukoek *Baga, Biga, Higa* Sentikariarekin urratutako bideari jarraituz, taldeko partaide izandakoek beste abeslari batzuekin elkartuta, Euskal Herri osoan ikusgarri kolektiboak eskaintzen jarraitu zuten. Gaietan nahiz estetikan nabaritu zen, batez ere, aldaketa; izan ere, gero eta gehiago zaintzen zuten lan egiteko modua. Aro berri horretako lehenengo lanik aipagarriena *Zazpiribai* da, 1972an mugaz bi aldeetako kantariak batera eginiko emanaldia. Alde batetik, Ez Dok Amairun ibilitako Lete, Irigarai, Lertxundi eta Lourdes Iriondo zeuden, eta, bestetik, lehenengo aldiz, Iparraldeko abeslariak: Manex Pagola eta Ospitale-Carrere bikotea (Feito 1990: 35).

Zertxobait geroagokoa dugu *Ikimilikiliklik* izeneko ikuskizuna, 1974tik 1978ra arte eskainia. Aurreko bien ildotik, ikus-entzunezko ikuskizuna izan zen, filminak, kantak, txalaparta eta olerkiak tartekatuz egina. Partaideen artean, Mikel Laboa, eta Artze eta Zabala anaiak zeuden.

*Ortzikenek*, Iparraldeko kantariak sortutako ekitaldiak, disko bat eman zuen, eta, 1975etik aurrera, beste ikuskizun batzuk ere sortu ziren; hala nola, *Biper Beltz* eta *Zirikan*, Iparraldeko kantariak egindakoak.

*Kanta-bi* ikuskizuna (1978) Manex Pagolak eta beste hiru lagunek muntatu zuten, eta arrakasta erdietsi zuten, bai Iparraldean, bai Hegoaldean. Haien asmoa antzerki kantatua egitea zen eta jendeari parte hartzeko aukera ematea. Ordurako, Iparraldean, kantaldien beherakada nabarmena zen, baina Hegoaldeko jende asko beste aldera pasatzen zen, eta Iparraldeko beherakada ez zen hain nabarmena. Garai horretako ikuskizunak ez ziren ekonomikoki hain errentagarriak ere (teknikariak, marketing-a...), eta, gainera, ez zuten beti harrera ona jaso; izan ere, Iparraldeko gizarte kontserbadorea ez zegoen oso ohitua halako ausardia artistikoetara eta Hegoaldeko errealitate sozio-ekonomikoetan inspiratutako gaietara.

### 3. Hegoaldeko diskogintza

Hegoaldeko diskogintzan, batez ere 1974tik aurrera, urte oparoak izan ziren aurreko hamarkadan abesten hasitako hainbatentzat. Abestien letrei zegokienez, M. Laboa eta X. Lete izan ziren aurrerakoiak; eta musika aldetik berritzaileena, berriz, M. Laboa. *Haize begoa*, *Haika mutil*, *Txoriak txori* kantak ezagutzera eman zituen *Bat Hiru* diskoan Laboak. Disko horretan, beste artista batzuen laguntza eta lankidetzat izan zuen: Artzek kanten letrekin lagundu zion, eta Zumeta margolariak diskoaren azalaren diseinua egin zuen. Diskoan, hiru bide jorratu zituen: batetik, poetak musikatzea; bestetik, kanta herrikoiak lantzea, eta, hirugarrenik, kanta esperimentalari ateak zabaltzea. Hirugarren bide hori *Gernika* eta *Baga Biga* kantekin ere jorratu zuen, gai berriak ikertuz eta adierazteko modu esperimentalak hautatuz. Bide berriak urratu nahi horretan, hainbat hizkuntza nahastu zituen (euskara, ingelesa, gaztelania...); horren adibide dugu *Komunikazioa*, *inkomunikazioa* abestia.

70eko hamarkadan, Benito Lertxundiren lana gero eta sakonagoa eta lirikoagoa bihurtu zen (Feito 1990: 43). Ordura arte eskuetan ohotzara gitarra zuela agertzen zen B. Lertxundik bi berrikuntza egin zituen emanaldietan: taldean agertu eta hainbat instrumentu txertatu.

Xabier Letek bere izena zuen diskoan bakarkako lanak eskaini zizkigun, besteak beste *Altzateko jaun*, *Kontrapas* eta *Nafarroa arragoa*. Abestiak sortzeaz gain, bertso zaharrak ere musikatu eta kantatu zituen Julen Lekuona eta Antton Valverderekin batera. Helburua izan zen euskal tradizioa berreskuratzea eta ondorengoei transmititzea. Langintza horretan, Lourdes Iriondo izan zuen bidelagun. 1978an, Letek kantatzeari uztea erabaki zuen, *Lore bat*, *zauri bat* argitaratu ondoren; *Xalbadorren heriotzean* kanta hunkigarria disko horretakoa da. Antton Valverdek bakarka jarraitu zuen kantari, eta *Lauaxeta* izeneko diskoan eman zigun *Agur Euzkadi* poema musikatu ezaguna.

Lourdes Iriondok –Joan Baez euskaldunak– kantuan jarraitu zuen, eta, 1974an, bere lehenengo LPa atera zuen; bertan, bere belaunaldiko kide batzuekin grabatutako herri-kantak eman zituen. Garai hartakoa da baita *Errota zahar maitea* kanta ere (Juan Mari Lekuonak idatzitako poema). 1976an, X. Leterekin batera plazaratutako bildumak jarri zion muga bere ibilbide artistikoari, eta, orduetik aurrera, umeentzako musika eta literatura sortu zituen.

Kantagintza ideia politikoen adierazpide gisa erabiltzen zen. Franco hil ondorengo urteetan, Pako Aristik dioenez, *txanpinoien aroa*, *belaunaldi oso koiunturala* hasi zen: zentsura



asko bigundu zen, kantek zentzu metaforikoa galdu, mezua modu zuzenagoan eman, kantari asko sortu, eta hiruzpalau urtera desagertu... Errebindikazio politikoak maiz azaleratzen ziren, esaterako, ezaguna da orduko *Zer eskatzen du herriak?* kanta. Epe horri, Belen Oronozek *banderen garaia* deitu dio. Giro horretan, kantaldiak bateragile eta erreferentzia izan ziren, sistemaren aurkako desafioa, eta abeslariak – G. Mendibil, Xeberri, Gorka Knörr, Urko...– parte hartu zuten erabat ados zeudelako. Urkok, adibidez, izugarrizko arrakasta lortu zuen *Guk euskaraz* kantarekin.

#### a. **Baztertuak**

Gizartean sortutako liskarrak musikara ere hedatu ziren, eta hainbat abeslarik bazterketa eta boikota jasan zuten. Bazterketa eta boikot horren atzean, batzuetan, hizkuntza-arrazoia egon zen, eta, beste batzuetan, politika –abertzaleak / espainolistak–. Bazterketa pairatu zutenen artean, Oskorri taldea dago, marxista-leninistak izateagatik. Imanolek ere sufritu zuen boikota kanta bakan batzuk gaztelaniaz abesteagatik; hala ere, kantatzen hasi zenean abeslari konprometitua zelako Iparraldean errefuxiatu behar izan zuen, eta bere lana *Mixel Etxegaray* goitzenaz argitaratu. Bazterketa hori kantaldietan eta musikarien sindikatuan (Agerki) bizi izan zuten; hala ere, beren bidea jarraitu zuten hurrengo hamarkadetan. Adierazi behar da abeslari eta bertsolari guzti-guztiek ez zituztela zokoratu.

## 4. **Iparraldeko abeslariak**

Iparraldeko kantariak Hegoaldera egin zuten jauzi. 1972 aldera, Peio Ospital eta Pantxo Carrere Hegoaldean abesten hasi ziren, eta izugarrizko arrakasta lortu zuten: garai hartako borroka-kanturik hunkigarrienak eman zieten arrakasta Iparraldean nahiz Hegoaldean (*Itziarren semea, Lepoan hartu ta segi aurrera, Bai euskarari ...* –Telesforo Monzonek sortutakoak–). Peio eta Pantxoak abestutako kanten artean, baziren bestelako abestiak ere: batzuek haurrentzako maleziarik gabeko abestien itxura zuten (*Urtxintxak*); beste batzuek kanta herrikoien arloa jorratu zuten (*Oriko xoria*). Euskaldun askorentzat, bikote horren kantarik ederrenetakoa *Azken dantza* da.

Etxamendi eta Larralde bikotea – gitarra xume bat eta bi ahots elkarren osagarri– ere aipatu behar da Iparraldeko kantarien artean. Euskal Herriko laborarien arazo sozio-ekonomikoak, lur-espekulazioa, basamortutze demografikoa eta euskararen galtzea

aipatzen zituzten beren abestietan. Etxamendirena da mugaren bi aldeetan hain arrakastatsua izan zen *Yup la la* abestia.

Rock-uhinak ere Iparraldetik etorri ziren (iraultza euskal musikan) Errobi taldeko Anje Duhalde eta Niko Etxart-ekin. Lehenago, M. Labeguerierekin gertatu bezala, joera europarrekin harreman handiagoa eta goiztiarragoa izan zuten Iparraldekoek. Errobi eragin ugari taldea izan zen, inspirazio-iturria beti euskal musikan aurkitu arren, Crosby, Stills eta Nash-en eragina ere suma daiteke batzuetan. Errobi taldea aitzindaria izan zen euskal musikan, aurretik inor ez baitzen ausartu estiloa berritzen; izan ere, folka eta rocka nahastuta zituzten, soinu akustikoak eta elektrikoak. Estreinakoz euskarazko rocka agertu zen: abertzalea, bere garaiarekin arduratua eta batzuetan bestelako kulturekin bat egiten zuena (Larraburu 2001: 125).

Errobiren emanaldiak arrakastatsua izan ziren Hegoaldean eta Iparraldean. Hegoaldeko gazteek, bereziki, harrera ona egin zioten musika-estilo berriari, erdi zabalik zegoen ate bat baitzen sistema frankistak debekuz jositako mundu batean. Iparraldean, berriz, haien kontzertuek harridura ere sortu zuten erreperitorio tradizionalarekin ohituta zeuden ikus-entzuleen artean. Aipatutako arrakasta horren sekretua kalitate teknikoari eta musikaren kalitateari burujabetzaren aldeko bizitasuna eta aberastasuna eranstea izan zen.

Errobikoen kantetan, letra funtsezkoa izan zen. Haien erreperitorioa ez zen soilik aldarrikapen abertzalera mugatu, 70eko hamarkadan mundua astindu zuten gai ei ere heldu baitzieten. Ironia izan zen, hain zuzen ere, gai zailei heltzeko arma nagusia; ironia izan zen, hain zuzen, *Nagusiaren nigarrak* eta *Lantegiko hamar manamenduak* kanten letra idaztean Daniel Landartek erabili zuen baliabidea. Lehenengo diskoa *Errobi* izan zen (1975); bi urte geroago, *Gure Lekukotasuna*, Errobiren benetako manifestua, kaleratu zuten. Euskal Herrian, garai hartan, euskal rock kontzertuak gazteriaren adierazpen eta aisialdi espaziorik nagusienak bilakatu ziren.

Urte haietako Iparraldeko kantarien aipamenarekin amaitzeko, Erramun Martikorena, Baigorriko artzain laboraria, ekarriko dugu gogora. Martikorena oso ezaguna egin zen 1978tik aurrera, batez ere kantu herrikoiak eskainiz: *Ai zer plazerra, Maitiak galdegin zautan...*

## 5. Bide berriak euskal kantagintzan

Gure artean, protesta-kantak unerik indartsuenean zeudenean, euskal kantari batzuek gurgil horretan aritzeari uko egin zioten, eta bide berriak urratzen hasi: Iñaki Eizmendi, Txomin Artola... Abeslari horiek kezka soziala izan arren, estetikari gero eta

garrantzi handiagoa ematen hasi ziren; estilo poetiko eta iradokitzailea eskaintzeari ekin zioten, bide propioa eraikitzeko.

1971n sortutako Oskorri taldeak ibilbide luzea eta oparoa egin du folkaren esparruan. Taldearen lehen emaitza honako disko hau izan zen: *Gabriel Arestiren omenez* (1976). Disko horretakoa da, hain zuzen *Gora ta gora beti* kanta. Oskorritz gain, baziren beste bi folk-talde arrakastatsu ere: batetik, Txomin Artolaren babesean sortutako Haizea, balada zaharretan oinarritutako folka egiten zuena, eta, bestetik, Izukaitz, lehen aldiz alboka musika modernoarekin elkartu zuena.

Itoiz taldearekin pop-musika eta rock sinfonikoa iritsi ziren euskal kantagintzara (Eskisabel, 2005: 9). Itoiz musika-taldearen sorreran, Indar Trabes berbena-taldea dago; berbena-talde moduan hiru urtez jardun eta gero, Juan Karlos Perezen gidaritzapean, musika-estiloa eta izena aldatu zuten. Horrekin aro berria hasi zuten. Itoizek Led Zepellin, Genesis eta Camel-en eragina izan zuen. Oroimen kolektiboan ezabaezinak diren hainbat kantu sortu zituzten: *Lau teiatu* (1978, *Itoiz*). Oso arrakastatsua izan zen, halaber, *Ezekeielen prophezia* diskoa (1980).

## 6. Diskografia

Abeslaria Taldea	Diskografia	Aho Bete Kanta	Diskoetxea Urtea	Estiloa
ANTTON VALVERDE	<i>Antton Valverde</i>	<i>Maitasunez hil</i>	Herri Gogoa 1975	Kantautorea
		<i>Asaba zarren baratzga</i>	Edigsa-Herri Gogoa 1975	
	<i>Lanaxeta</i>	<i>Agur Euzkadi</i>	Ots 1978	
BENITO LERTXUNDI	<i>Benito Lertxundi</i>		ELK HG 1971	Kantautorea
	<i>Oro laño mee batek...</i>	<i>Herri behera</i>	Artezi 1974	
	<i>...eta maita berria, ñiken dezadan plazerra</i>	<i>Basoilarrak</i>	Elkar 1975	
	<i>Zuberoa</i>	<i>Bizkaia maite</i>	Elkar 1977	
	<i>Euskal Kanta berria</i>		1979	
ERRAMUN MARTIKORENA	<i>Baigorriko artzain laboraria</i>	<i>Maitiak galdegin zautan</i>	Elkar 1978	Kantautorea
	<i>Baigorriko artzain laboraria</i>	<i>Ai zer plazerra</i>	Elkar 1978	
ERROBI	<i>Errobi</i>		Elkar 1975	Rock-a, folk eta rock nahasketa
	<i>Gure lekukotasuna</i>	<i>Aitarik ez</i>	Elkar 1977	
		<i>Gure zortea</i>	Elkar 1977	
		<i>Zuretzat</i>	Elkar 1977	
	<i>Bizi-bizian</i>		Xoxoa 1978	
<i>Ametsaren bidea</i>		Xoxoa 1978		
ESTITXU	<i>Estitxu</i> <i>Agur Maria</i>		Columbia 1972	Kantautorea
ETXAMANDI ETA LARRALDE	<i>Joseba Elosegiri</i>	<i>Haurtxoa</i>	Egia 1971	Kantautorea
GONTZAL MENDIBIL	<i>Zaurietatik dario</i>	<i>Barare</i>	IZ 1976	Kantautorea
	<i>Egusentiarri agur</i>		1978	

GORKA KNÖR	<i>Nik nabi dudana</i>	<i>Azken agurraren negarra</i>	Arte y Ciencia 1975	Kantautorea
	<i>Txalaparta</i>	<i>Txalaparta</i>	Kardantxa 1976	
HAIZEA TXOMIN ARTOLA ETA AMAIA ZUBIRIA	<i>Haizea</i>	<i>Brodatszen ari nintzen</i>	Ots 1977	Folk-rock progresiboa
	<i>Hontz gana</i>	<i>Anderea</i>	Xoxoa 1979	

Abeslaria Taldea	Diskografia	Aho Bete Kanta	Diskoetxea Urtea	Estiloa
IÑAKI EIZMENDI	<i>Gureak ez diren kale ixileen bi milagarren samina</i>	<i>Larra erdian</i>	Kardantxa 1977	Kantautorea
ITOIZ	<i>Itoiz</i>	<i>Lau teilatu</i>	Xoxoa 1978	Rocka
IMANOL	<i>Herriak ez du barkatuko</i>		1974	Kantautorea
	<i>Lau haizetara</i>		1977	
LURDES IRIONDO	<i>Lurdes Iriondo</i> <i>Errota zabar maitea</i>		Arte y Ciencia 1974	Kantautorea
	<i>Lurdes Iriondo-Xabier Lete</i>		Edigsa 1976	
MIKEL LABOA	<i>Bat biru</i>	<i>Baga, biga, 88 biga</i>	Edigsa/ Herri Gogoa 1974	Kantautorea
		<i>Haize hegoa</i>	Herri Gogoa 1974	Kantautorea
NIKO ETXART	<i>Euskal Rock n'Roll</i>	<i>Euskal rock and roll</i>	Kardantxa 1979	Rocka
	<i>Nabasketa</i>	<i>Eperrak</i>	Kardantxa 1979	
ORTZIKEN	<i>Iparraldeko kantarien ikuskizuna</i>		1975	Ikuskizuna
OSKORRI	<i>Gabriel Arestiren omenez</i>	<i>Aita semeak</i>	CBS 1975	Folka
		<i>Gora ta gora beti</i>	CBS 1975	
	<i>Mosen Bernat Etxepare</i>		1976	
	<i>Oskorri</i>		1979	
PEIO TA PANTXOA PEIO HOSPITAL ETA PANTXOA CARRERE	<i>Ospital - Carrere</i>	<i>Urtxintxak</i>	Elkar 1975	Kantautoreak
		<i>Ikastoletako ereserkia/Euskara plazara</i>	Elkar 1975	
	<i>Pantxoa ta Peio</i>	<i>Oriko xoria</i>	Elkar 1978	
TXOMIN ARTOLA	<i>Olasta</i>	<i>Txakurraren partia</i>	Edigsa-Herri Gogoa 1975	Folka
	<i>Belar hostoak</i>	<i>Baserriko ate zabalak</i>	Xoxoa 1978	Folka
URKO JOSE ANTONIO LARRAÑAGA	<i>Sakonki maite zaitut Euskal- Herria</i> <i>Guk euskaraz</i>	<i>Maite maite maite</i>	Zafiro 1977	Kantautorea
XABIER LETE	<i>Xabier Lete</i>	<i>Altzateko jaun</i>	Arte y Ciencia 1974	Kantautorea
		<i>Kontrapas</i>		
		<i>Nafarroa arragoa</i>		
	<i>Lore bat, zauri bat</i>	<i>Xalbadorren heriotzean</i>	Ots 1978 Elkar 1978	
XABIER LETE	<i>Kantatzera noazu</i>		Elkar 1976	Kantautorea
XABIER LETE ANTON VALVERDE ETA J.LEKUONA	<i>Bertsu zabarrak</i>		Elkar 1974	Kantautorea
XABIER LETE ETA ANTON VALVERDE	<i>Txirritaren bertsoak</i>		Elkar 1975	Kantautorea

## 4. Atala: 80ko hamarkada

---

## 1. Giro sozio-politiko

80ko hamarkadaren hasieran, haize berriak jo zuen euskal kantagintza. Aldaketa sakonen garaia izan zen, eta ez da harritzekoa gizartearen beste maila batzuetan gertatutako aldaketak ikusirik.

### a. Hegoaldean

PSOEk, Felipe Gonzalez buru zuela, 1982ko hauteskundeak irabazi zituen (baita 1986., 1989. eta 1993. urteetakoak ere). Hamarkada horretan, Penintsulako erkidego guztiek beren autonomia-estatutuak (1979-1983) onartu zituzten. 1982an, NATO n sartzen da Espainia. 1986an, Europako Batasunean sartu zen eskubide osoko kide gisa. Euskal Autonomia Erkidegoan ere, 1982an egin ziren Udal eta Batzar Nagusietarako lehenengo hauteskundeak, eta, horietan, Eusko Alderdi Jeltzalea kontsolidatu zen lehenengo indar politiko gisa. Baina, 1984an, EAJk barne-krisi bat bizi izan zuen, eta Carlos Gaikoetxea lehendakariak kargua utzi behar izan zuen. Alderdia zatitu zen, eta Eusko Alkartasuna sortu. Ondorioz, hauteskundeak aurreratu ziren (1986), EAJk indarra galdu, eta hurrengo legegintzaldian koalizioan gobernatu behar izan zuen PSOErekin batera.

Ekonomia-mailan, aurreko hiru bosturtekoen espansionismoaren ondoren, 70eko hamarkadaren bukaera aldera, desazelerazioa eta ekonomia-krisia etorri ziren: burdingintza eta untzigintza berregituratu behar izan ziren, garai berrietako lehiakortasunari aurre egiteko; etxetresna elektrikoak egiten zituzten lantegi ugari zeuden, eta horietako askok eraikuntza-sektorearen atzeraldia antzeman zuten; makina-erremintak ere, behinola oso sektore dinamikoa, krisi gogorra pairatu zuen. Laburbilduz, sektore guztiak izan ziren, neurri batean edo bestean, egoeraren biktima. Estatuaren demokratizazioak, sindikatuen agerpenak, gizarte-gatazkak, ekonomiaren liberalizazioak... osatu zuten marko berria. Horrek guztiak giro sozial nahasia ekarri zuen: plantilla-murrizketak, erretiro aurreratuak, langabezia, batez ere lehenengo lana lortzeko orduan.... Industria berregituratu behar izateak eragina izan zuen langileengan eta horien senideengan, eta bilakaera horrek ondorio berezia izan zuen gazteriarengan. 80ko hamarkadan, gazteen langabezia % 40tik % 50era bitartekoa izan zen.

ETAk ez zuen bere egin autonomia-erkidegoen prozesua; beraz, borroka armatua indartu zuen, desadostasuna erakusteko. Atentatuak ugaltu ziren; presoak sakabanatu zituzten; independentziaren aldeko aldarrikapenak gora egin zuten...

Soldadutza nahitaezkoa zen oraindik ere, eta, horren ondorioz, kontzientzia-eragozpena eta intsumisioa helburu zuten mugimenduak sortu ziren. Hego Euskal Herrian, 1980ko hamarkadan, soldadutzaren aurkako mugimendu antimilitarista sendotu zen. Mugimendu antimilitaristak antolatzeari ekin zioten hainbat gazte-taldek; Kontzientzia Eragozpen Mugimendua (KEM) eta Kakitzat izan ziren inportanteenak. Gauzak horrela, kontzientzia-eragozpena erregulatu zuen gobernu sozialistak 1984an: legeak ordezkotako gizarte-zerbitzu bat betetzera behartzen zituen eragozleak. Ordudanik, euskal gazteen artean, milaka lagunengatik poltsa sortu zen, ez baitzegoen ordezkotako gizarte-zerbitzurik antolatuta; gazteria hori linbo juridikoan bizi izan zen hainbat urtez. Espainian, 1980-88 bitartean, 2.500etik 38.500era igo zen kontzientzia-eragozleen kopurua. Bestalde, mugimendu horrek –NATOren aurkako kanpainaren barruan– ezkerreko alderdi eta mugimenduen laguntza jaso zuen.

Gainera, gazteak Europara bidaiatzen hasi ziren, Londres, Berlin eta Amsterdam-era; hango ereduak eta esperientziak ezagutu, eta hona ekartzeko: okupazioa, gaztetxeak, irrati libreak, fantzineak, jai alternatiboak, rock-jaialdiak... Baina euskaldunak ez ziren Europara bakarrik atera, Ertamerika eta Hego Amerika ere joan ziren. Horrela, 1936ko Gerra Zibilaren osteko euskal exodoaren sehaskak berraurkitu zituzten. Urte batzuk geroago, Frantziatik botatako errefuxiatu asko ere hara joan ziren bizitzera; Ertamerikako eta Hego Amerikako erritmo eta kultura indigenak ezagutu, eta itsasoz bestalde bizi ziren senide eta lagunei transmititu zizkieten. Ondorioz, hainbat mugimendu internazionalista sortu ziren gure artean.

## **b. Iparraldean**

Ipar Euskal Herriko herritar gehienak oraindik baserritarrak ziren, eta euskararen egoera oso kezagarria zen: euskarak ez zuen legezko estaturik.



Turismoaren aldeko politika indartsua zela eta, turismoaren aurkako mugimendu bat sortu zen. 1980ko hamarkadaren hasieran, Herri talde federazioa sortu zuen mugimendu horrek, euskara ofiziala izan zedin eta turismo hutsean oinarritutako politika ekonomikoaren aurka egiteko. Urte horietan, Iparretarrak taldeak (1973) eskaera horien aldeko ekintzak egin zituen.

Une horretan, GAL taldea jaio zen, eta izua ekarri zuen Hegoaldetik Iparraldera ihes egin behar izan zuten errefuxiatu politikoen artean. Ondorioa adierazgarria da: 1983-87 bitartean, mertzenario ordainduak 60 atentatu egin zituzten, eta 26 hildako eta 30 zauritu eragin. Haien biktimak Iparraldean errefuxiatutako ETAko ustezko kide edo buruzagiak izan ziren. Lehergailuak ez-tandarazi, eta ostatu eta gune abertzaleak metrailatu zituzten. Itzal bat agertu zen zerumugan: Espainia.

## 2. Punk mugimendua

Punk mugimendua Londresen jaio zen 1976. urte inguruan, Britainia Handia krisi ekonomiko latzak jota zegoen unean, hain zuzen. Hippy mugimenduaren ifrentzu gisa uler daiteke punk-a. Mendebaldeko herrialdeetan, mugimendu hippyak –itxaropenaren eta gaztetasunaren mugimendua– gizartea eraldatzearekin egiten zuen amets. Alabaina, itxaropena ez zen bete, eta, Euskal Herrian geroago gertatuko zen bezala, sistema menderatzaileak gazteriaren egoera okertu eta etorkizuneko atek, nolabait, itxiko zizkion. “No future for you”, iragartzen zuen *Sex Pistols* taldeak, punk musikaren aitzindarietako batek. Giro horretan, punk mugimenduak, batik bat, ukazioa zuen oinarrian.

Punk estetika probokatzailerik gizartearekiko desafioa adierazi zuen: kateak, bota militarrik, belarrietako kateorrazak, gandorrak... Antisozial eta antisistema gisa definitu zuen bere burua, ezer eskaintzen ez zion gizartearen aurka.

Mugimendu horrek bat-bateko energiari eman zion lehentasuna, ez zuen teorizazio-oinarririk. Apaindura eta edergailu guztiak (sintetizadoreak...) pikutara bidali zituzten, eta gitarra, baxua eta bateria nagusitu ziren; abestiak, berriz, laburrak, elektrikoak eta oihukatuak. Rockaren asmo, eta indar oinarritzkoenak eta basatienak berreskuratu zituen. Haien leloa hauxe izan zen: “Egin ezazu, ahal duzun moduan”.

### 3. Euskal Rock Erradikala (RRV)

RRV terminoa 1983tik aurrera agertu zen. Izen hori Tuteran egindako NATOren kontrako kontzertu batean erabili zen lehen aldiz. Han, hainbat sektoretako entzuleak bildu ziren (ekologistak, punkiak, *heavy*, alderdi ezkertiarretako militanteak...), eta hizkuntzaren arteko mugak apurtuta, euskaraz eta gaztelaniaz kantatu zuten naturaltasun osoz, mugimendu horretako kontzertu gehienetan bezala. Kontzertu hartan, Barricada, La Polla Records, RIP, Basura, Eskorbuto, Hertzainak eta Zaramak hartu zuten parte. Kontzertu hura izan zen orduko musika-mugimenduaren ikur, eta, handik aurrera, RRV mugimenduaren ispilu. Giro horretan, musika-taldeen arteko harremana ona zen: abesti batzuk elkarrekin jotzen zituzten (Cicatriz eta Jotakiek batera, edota Barricada eta La Pollak...), ekimen berriak sortzeko gogo bizia zegoen.

Aipatutako giro nahasian sortu zen RRV mugimendua, “Egin ezazu nahi duzuna, ahal duzun moduan” lemapean. Musika aldetik ez zuen berritasunik ekarri, baina erakutsi zuen musika edonoren esku zegoela: ez zen musika asko jakin behar, gogo biziz eta une jakin batean sentitzen zena kanporatuz gauza asko egin zitekeen eta.

RRVmugimenduak, bereziki, punk mugimendutik edan zuen; baita ska, reggae, hardcorea... mugimenduetatik ere, hau da, punk-aren “lagunengandik”. Gainera, mugimendu horrek sinkronizazioa lortu zuen Europako mugimendu nagusiekin.

#### a. Hegoaldean

80ko hamarkadako lehenengo urteetatik aurrera, ehunka punk-talde agertu ziren Hegoaldean. Lehenengo taldeak –Zarama eta Eskorbuto– krisiak jotako eskualdean sortutakoak dira, Nerbioi ibaiaren ezkerrean hain zuzen. Berehala, Euskal Herri osoan jaio ziren horrelako taldeak: Hertzainak (Gasteiz), La Polla (Agurain) eta Barricada (Iruñea). Geroago, bigarren labekadan, Cicatriz, Kortatu, Bap, Danba, Tijuana in Blue, Potato, Rip, Jotakie, Delirium Tremens... etorri ziren.

Euskal punk mugimenduak, punk-aren ezaugarri propioez gain, Euskal Herriko errealitateari erantzuten zion hainbat ñabardura garatu zituen: errepresioa, tortura, presoak, hildakoak, estatutua, intsumisioa, okupazioa, borroka armatua... ohiko gaiak izan ziren haien letretan. Euskal punkaren beste bereizgarri bat izan

zen utopiari utzitako lekua: punk mugimenduan itxaropenik agertzen ez bazen ere, euskal punkaren barnean etsipenaren eta utopiaren nahasketa sumatu zen. Utopia hori, bereziki, *Euskadi tropikala* ametsaren inguruan bildu zen.

Ezker Abertzaleak bat egin zuen mugimendu estetiko berri horrekin, eta, “Martxa eta Borroka” kanpainaren bidez, makina bat kontzertu antolatu zituen. Kanpaina hori Donostian hasi zen, 1985eko otsailean, eta, hilabete batean, gazteriari buruzko mahainguruak, hitzaldiak, zinema-emanaldiak, eta hogeita bat kontzertu ospatu ziren. Bukatu ere, 20.000 entzule bildu zituen kontzertu batez amaitu zen Bilbon.

Bestalde, mundu alternatiboak berebiziko indarra hartu zuen: diskoetxe independenteak sortzen hasi ziren: Soinua, Discos Suicidas, Basati; fantzineak ere agertu ziren punk musikaren eta gazteen mugimenduen inguruan: *Destruye!*, *Resiste!*, *Sorbemocos*, *Sintonia Cerebral*, *Rock OH Rollo*; komunikabideen arloan, berriz, irrati librean hedapena suertatu zen: Hala Bedi (Gasteiz), Eguzki irratia (Iruñea), Txomin Barullo (Bilbo)...; 1984tik aurrera, okupazioak gertatu ziren, eta gaztetxeak eratu. Horrekin guztiarekin, gazte-mugimenduek autogestioa bilatu zuten; gaur egun Euskal Herrian dagoen gaztetxe-sarea sasoi hartako eztaidari eta orduan egindako lanari zor diogu. Mugimendua ez zen musikaren alorrera mugatu: ekologismoa, antikapitalismoa, intsumisioa... hainbat pentsakera berri ere zabaltzen hasi ziren.

Euskal musikak gero eta leku gehiago zuen prentsa idatzian: *Bat, bi, hiru* Egineko gehigarria; *Debórame*, *El Diario Vasco*koa. Musika-aldizkari mitikoak sortu ziren hamarkada horretan: Roge Blascoren *Muskaria* eta Belen Mijangosen *El Tubo*. Pablo Cabezak Radio Euskadin egiten zuen musikari buruzko programa izan zen mugimendu horren bozgorailua.

Euskal Herriko esperientziak eragin handia izan zuen Espainiako Estatu osoan, eta Estatuko taldeek hona begiratu zuten, hemengo taldeen gordintasunari eta kalitateari erreparatuta, antolakuntza-sistema eredu garria zen eta.

Askoren ustez, RRV mugimenduak izan zuen gauzarik onena izan zen gaztetxe, irrati libre, musika-talde eta Euskal Herriko bazter guztietan osatu ziren kolektibo ugarietan jende gazte askok parte hartu zuela: urte haietan gertatu

zenaren soinu-banda izan zen. Eta okerrena, berriz, jende asko geratu zela bidean: urte eroen ordaina iritsi, eta heroinaz edo hiesaz hildakoak asko izan ziren.

Hamarkadaren bukaera aldera, taldeak desegin ziren: sortzen ari ziren talde berriek maila tekniko hobea zuten, musika dibertsifikatu zen, eta rock erradikala gainditu zen. Baina ezin dugu ukatu musikak harrezkero egin duen ibilbide emankorra garai hartan Euskal Herri osoan agertu ziren talde haiek urratu zuten bidearen ondorioa dela.

## **b. Iparraldean**

RRV mugimenduak ez zuen izan Iparraldean Hegoaldean lortu zuen trinkotasuna, baina gazteriaren mugimenduari nolabaiteko bultzada eman zion ekimenik sortu zen: fantzineak (*Virus, Patxaran, Coctel Molotov...*), baita gaztetxeak eta irrati libre batzuen bultzada ere (Gure Irratia, Irulegi).

Patxa elkarte punk anarkista erreferentzietako bat izan zen gazteriaren mugimenduetan. Txetx Etxeberri bultzatutako elkarte horren inguruan talde berriak sortu ziren: Huarteko Punkak, Trukes, Mikelats, KGB, Ludwig Von 88...

## **4. Laurogeiko hamarkadako diskografia, RRVz gain**

### **a. Hegoaldean**

- Hamarkada hau Ruper Ordorikaren *Hautsi da anphora* diskoaren akorde leunekin estreinatu genuen. Ruperren estraineko disko horren letrek identifikazio handia lortu zuten zaleen artean; letra horiek bere lagun Bernardo Atxagaren –ezezagun samarra oraindik– testuak moldatuz osatu zituen, eta kritikaren onespena erdietsi. Lan horrekin, gaur egun arte iritsi den bide emankorrari ekin zion. Gainera, hamarkada horretan finkatu zuen bere estiloa, honako disko hauek argitaratuta: batetik, *Ni ez naiz Noruegako errege* (Atxagaren, Sarrionaindiaren eta Jimu Iturrালের testuez moldatutakoa, eta bere lehen letrekin idatzitakoa); eta bestetik, *Bibotzerreak* (Londresen egonaldi bat egin ondoren argitaratutakoa).

- Itoiz taldekoen hamarkada loratuena izan zen hau: 1983an, *Musikaz blai* diskoa argitaratu zuten, eta arrakasta handia eskuratu; haien kontzertuetan ehunka entzule biltzen ziren, bai Euskal Herri osoan, baita Espainian ere. *Espaloian* diskoarekin jo zuten gailurra, jendearen erabateko onarpena eskuratu eta *legenda* bihurtu ziren. *Espaloian* diskoko *Tximeleta reggae* eta *Hegal egiten* kantak sortzeko (1985), Bernardo Atxagaren eta Jean Marie Ecay-ren laguntza izan zuten. Kirmen Uriberen arabera, maisuak izan ziren garai ilunetan mundu magikoak sortzen; irudimenaren bitartez lortu zuten geure pop musika kulturaren sartzea. Oso talde arrakastatsua izan zen desegin arte, 1988an, zuzeneko disko bat grabatu ondoren (*Eremuko dunen atzetik dabil*).
- 1983an, M-ak taldeak bere lehen diskoa argitaratu zuen: *Mmmmmmm...* izenekoa. Euskal Herrian, punk mugimendua gailurrean bazegoen ere, talde horrek hardcorea eta hip-hop-a fusionatu zituen. Garai hartako gazteek ez zuten ulertu talde horrek egiten zuen musika; denborarekin, berriz, ezaguna egin zen, eta kultuko talde bihurtu.
- Oskorrirentzat hamarkada hau oso emankorra gertatu zen; taldea finkatu, eta ikerketa lanetan ere hasi ziren. Folka landu zuten talde gehiago ere bazeuden: Txanbela, Azala, Kazkabarra..., nahiko talde minoritarioak.
- Aurreko urteetan kantari hasitakoek ere musika egiten jarraitu zuten: Benito Lertxundi, Mikel Laboa, Xabier Lete, Amaia Zubiria, Txomin Artola, Imanol Larzabal, Ibai Rekondo...
- Trikitixaren munduan iraultza gertatu zen: Tapia eta Leturia, batetik, eta Kepa Junkera, bestetik, izan ziren iraultza horren ikurrak. Beste disko bitxi bat ere izan zen hamarkada honetan, R. Ordorikaren laguntzaz Maurizia, Leon eta Fasioren lanak bildu zituena.

## **b. Iparraldean**

- Errobi taldea berpizteko saiakera egin zuten Anje Duhalde eta Michel Ducau-k, baina arrakastarik gabe. Bakoitzak bere ibilbide pertsonalari jarraitu zion, eta emaitza ederrak lortu zituzten ondorengo hamarkadan.
- Peio eta Pantxoak azken diskoak grabatu zituzten, kantagintza politikotik urrunduta.

- Niko Etxartek, garai honetan, bere diskorik politenetakoa atera zuen:  
*Tumatxa* (1983), kantu surrealistekin osatua.

## 5. Diskografia

Abeslaria Taldea	Diskografia	Aho Bete Kanta	Diskoetxea Urtea	Estiloa
AKELARRE	<i>Gaupasa</i>	<i>Eperra</i>	IZ. 1982	
	<i>Mari</i>		IZ. 1985	Folka
	<i>Rockzale</i>		IZ. 1986	
AMAIA ZUBIRIA/PASCAL GAIGNE	<i>Egun argi bartan</i>		Elkar. 1985	Kantautorea
	<i>Kolorez eta ametsez</i>		Elkar. 1987	Folka
ANJE DUHALDE	<i>Erroz eta oroz</i>		IZ. 1987	Rocka
	<i>Nabas nabas</i>		IZ. 1989	Rocka
	<i>Errobiaren begitik</i>	<i>Euskara</i>	Xoxoa. 1980	Rocka
	<i>Agur l'ardi</i>		Xoxoa. 1985	Rocka
ANTTON VALVERDE	<i>Urte giroak ene begian</i>		Elkar. 1986	Kantautorea
AZALA	<i>Marigaizto</i>		Elkar. 1989	
BAI ZERA	<i>Bai zera</i>		Autoprodukzioa.1987	
BALBIN BADA	<i>Lur azpian bukatuko duzue</i>		Soiñua 1986	Rocka
BAP	<i>Bide buts eta etxe buts</i>		Basati diskak. 1988	
BARRICADA	<i>Noche de Rock and Roll</i>		Soinua. 1983	Rocka
	<i>Barrio Confictivo</i>		Soinua. 1984	Rocka
	<i>No hay tregua</i>		RCA. 1986	Rocka
	<i>Rojo</i>		Poligram. 1988	Rocka
	<i>No se qué hacer contigo</i>		Poligram. 1987	Rocka
BENITO LERTXUNDI	<i>Altabizkar</i>	<i>Nire herriko neskatxa maite</i>	Elkar. 1981	Valsa
	<i>Gaueko ele isilen baladak</i>		Elkar. 1985	
	<i>Mauleko bidean... izatearen mugagabeen</i>		Elkar. 1987	Kantautorea
	<i>Pazko gaiardi ondua</i>		Elkar. 1989	Kantautorea
CICATRIZ	<i>Inadaptados</i>		Soinua. 1986	Punk-rocka
DANBA	<i>Plataforman</i>		Basati diskak. 1989	Rocka
DELIRIUM TREMENS	<i>Hemen denak berdina dira</i>	<i>Ez in leike</i>	Oihuka. 1987	Rocka
	<i>Ikusi eta ikasi</i>	<i>Ikusi</i>	Oihuka. 1989	Rocka
EGAN	<i>Hemen gaude</i>		Xoxoa. 1985	
ERROBI	<i>Agur l'ardi</i>		Xoxoa. 1985	Rocka
ESKORBUTO	<i>Ezkeizofrenia</i>		Discos Suicidas. 1985	Punk-rocka
	<i>Anti todo</i>		Dro. 1986	
	<i>Los demenciales chicos acelerados</i>		Discos Suicidas. 1987	Punk-rocka
	<i>En directo</i>		Discos Suicidas. 1987	Punk-rocka
GANBARA	<i>Ganbaratik</i>		Elkar. 1989	Rocka
HERTZAINAK	<i>Hertzainak</i>	<i>Ta zer ez da berdin</i>	Elkar. 1984	Rocka
	<i>Hau dena aldatu nahi nuke</i>		Soiñua. 1985	Rocka
	<i>Salda badao</i>	<i>Esaio k</i>	Elkar.1988	Rocka
	<i>Ametz prefabrikatuak</i>	<i>Aitormena Egunetik egunera</i>	Oihuka. 1989	Rocka

Abeslaria Taldea	Diskografia	Aho Bete Kanta	Diskoetxea Urtea	Estiloa
IMANOL LARZABAL	<i>Mea kulparik ez</i>		Elkar. 1986	Kantautorea
	<i>Iratze okre geldiak</i>	<i>Mendian gora baritza</i>	IZ. 1982	Kantautorea
	<i>Erromantzeak</i>	<i>Goizian goizik Maitia, non zira Uso xuria Xarmangarria Zure tristura</i>	IZ. 1984	Kantautorea
	<i>Oroituz</i>		Elkar. 1985	
	<i>Joan etorrian</i>		Elkar. 1987	Kantautorea
	<i>Muga beroetan</i>		Elkar. 1989	Kantautorea
ITOIZ	<i>Ezezielen prophezia</i>	<i>Ezezielen prophezia</i>	Xoxoa. 1980	Rocka
	<i>Alkolea</i>		Elkar. 1982	
	<i>Musikaz blai</i>		Elkar. 1983	
	<i>Espaloian</i>	<i>Hegal egiten Tximeleta reage</i>	Elkar. 1985	
	<i>Ambulance</i>		Elkar. 1987	
	<i>Eremuko dunen atzetik dabil</i>		Elkar. 1988	
J.A. ARTZE	<i>Gizon handia eta mundua</i>		Elkar. 1988	Kantautorea
JABIER MUGURUZA	<i>Jaja</i>		IZ. 1989	Kantautorea
JOTAKIE	<i>Zutr!</i>		Soiñua. 1986	Rocka
	<i>Piztu nazazu jauna</i>		Oihuka. 1987	Rocka
	<i>Joxemari Baltza</i>		Oihuka. 1989	Rocka
JZK	<i>JZK</i>		IZ. 1986	Rocka
KAZKABARRA	<i>Kazkabarra</i>		Elkar. 1988	
KEPA, ZABALETA ETA MUTRIKU	<i>Kepa, Zabaleta eta Mutriku</i>		Elkar. 1987	Trikitia
KORTATU	<i>Kortatu</i>		Soiñua. 1985	Rocka
	<i>El estado de las cosas</i>		Soiñua. 1986	Rocka
	<i>Kolpez kolpe</i>	<i>Etxerat</i>	Oihuka. 1988	Rocka
	<i>Azken guda dantza</i>		Nola. 1988	Rocka
LA POLLA RECORDS	<i>Salve</i>		Soiñua. 1984	Punk-rocka
	<i>Revolución</i>		Soiñua. 1985	Punk-rocka
	<i>No te muevas</i>		Chata Diskas. 1987	Punk-rocka
	<i>Donde se habla</i>		Oihuka. 1988	Punk-rocka
	<i>En directo</i>		Oihuka. 1988	Punk-rocka
MADARIKATUAK	<i>Etsaiari makailana desertuan</i>		Elkar. 1987	Rocka
M-AK	<i>M M M M</i>		IZ. 1983	Rocka
	<i>Emeak eta arrak</i>		Nuevos Medios. 1986	
	<i>Zuloa</i>	<i>Milenioa</i>	IZ. 1987	Rocka
	<i>Barkatu ama</i>		IZ. 1989	



Abeslaria Taldea	Diskografia	Aho Bete Kanta	Diskoetxea Urtea	Estiloa
MAURIZIA, LEON ETA FASIO	<i>Maurizia, Leon, Basilio eta Fasio</i>	<i>Txikitxuterik</i>	Elkar. 1988	Trikitia
MCD	<i>Bilboko gaztetxean</i>		Discos Suicidas. 1986	Rocka
MIKEL LABOA	<i>Lau- bost</i>	<i>Izarren bantsa</i>	Xoxoa. 1980	Kantautorea
	6	<i>Ez nau izutzen negu burbilak</i> <i>Intro</i>	Elkar. 1985	Kantautorea
	<i>Lekeitikoak</i>		Elkar. 1988	Kantautorea
MINXORIAK	<i>Ibiliz</i>		Elkar. 1985	Rocka
NIKO ETXART	<i>Has dantzan</i>		Kardantxa. 1980	Rocka
	<i>Tumatxa</i>		Taska. 1983	
OSKORRI	<i>Plazarik plaza</i>	<i>Furra-furra</i> <i>Gaztelugatxe</i>	Xoxoa. 1980	Folka
	<i>In fraganti</i>	<i>Ostatuko neskatxaren</i> <i>ko`lak</i>	Elkar. 1986	
PANTXOIA ETA PEIO	<i>Bakezko besarkada batean</i>		Elkar. 1985	Kantautorea
RIP	<i>No te muevas</i>		Basati Diskak. 1987	Punk-rocka
RIP / ESKORBUTO	<i>Zona Especial Norte</i>		Spansuls. 1984	Punk-rocka
RUPER ORDORIKA	<i>Hautsi da anphora</i>	<i>Sagarrondo bati</i> <i>sebaska kanta</i>	Xoxoa. 1980	Kantautorea
	<i>Ni ez naiz Noruegako errege</i>		Elkar. 1983	
	<i>Bibotzerreak</i>		Elkar. 1985	Kantautorea
TAPIA ETA LETURIA	<i>Tapiaren trikitixa</i>	<i>Gure trikitilariak</i>	Elkar. 1989	Trikitia
	<i>Tapia eta Leturia</i>		Elkar. 1987	Trikitia
TXANBELA	<i>Hirugarren koxka</i>		IZ. 1989	Folka
TXOMIN ARTOLA	<i>Orbela</i>		Xoxoa. 1985	Kantautorea
	<i>Itxeku</i>		Elkar. 1986	Kantautorea
	<i>Berriz arte</i>		Elkar. 1988	Kantautorea
ZARAMA	<i>Indarrez</i>	<i>Zaramaren erdian</i>	Discos Suicidas. 1984	Rocka
	<i>Gana apurtu arte</i>		Discos Suicidas. 1985	Rocka
	<i>Dena ongi dabil</i>		Elkar. 1987	Rocka
	<i>Bostak bat</i>		Elkar. 1989	Rocka
ZEN	<i>Zen</i>		IZ. 1981	Rocka
ZEZENROCK	<i>Ardibeltz</i>		Divucsa. 1989	Rocka

## 5. Atala: 90eko hamarkada

---

## 1. Giro sozio-politiko

1989ko azaroaren 9an gaizki-ulertu baten ondorioz, jende andana oldartu zen Berlingo harresiaren kontra, eta agintariak atak erabat ireki behar izan zituzten. Berlindarrak, era guztietako tresnak eskuetan zituztela –palak, mailuak, pikotxak...–, harresia botatzen hasi ziren. Harresi hori erortzearekin batera, nazioen arteko mugak inoiz baino ahulagoak bihurtu ziren, eta, harrezkero, globalizazioaren garaian murgilduta bizi gara.

90eko hamarkadan, aurrerapen handiak gertatu ziren komunikabideetan, eta, horien artean, nabarmentzekoa da Internetek 1989az geroztik izandako garapena. Aurrerakuntza horiek ahalbidetu zuten munduko edozein tokitan sortutako informazio kopuru handia nonahi eta modu seguruan eskura jartzea, eta, gainera, bat-batean.

Multinazionalak, zenbait gobernuren laguntzarekin, komunikazio-erraztasun hori baliatu zuten boterea mundu osoan indartzeko, eta egoera ekonomikoa eta politikoa haien alde egonkortzeko.

Mendebaldeko multinazionalak eta estatuek bultzatutako globalizazioarekin batera, kontrako mugimenduak ere sortu ziren. Mugimendu horien lehendabiziko agerraldi publikoa Nazioarteko Moneta Funtsak Madrilen egindako bileran izan bazen ere (1995), lau urte geroago Seattel-en oihartzun ikaragarria lortu zuten; mundu osoa egon zen lau egunetan haiei begira.

### a. Hegoaldean

1973. urteko krisi ekonomikoaren ondorioz, 80ko hamarkadan, Euskal Autonomia Erkidegoko produkzio-ehunak eta lan-merkatuak behea jo zuten; hala ere, 90eko hamarkadan, ekonomiaren berpiztea hasi zen. Berpizte horren ikur garrantzitsua izan zen eta da Guggenheim museoaren inagurazioa.

Garai honetan, Espainiako egoera politikoan aldaketa handiak gertatu ziren, eta galdutako hainbat botere-esparru berreskuratu zituen eskuinak. Horrela, hamarkada hasieran, Fraga Galiziako Xuntako presidente izendatu zuten, eta, 1996ko maiatzean, Aznarrek Espainiako presidente kargua hartu zuen, PSOEn 13 urteko gobernuaren ondoren.

Gorabehera handiak gertatu ziren Espainian urte horietan. Madrilen eta Euskadiko Autonomia Erkidegoaren arteko tirabira politikoak handitu ziren. Giro horretan, 1995ean, ETAk Gregorio Ordoñez, PPko parlamentaria eta Donostiako zinegotzia, hil zuen; 1997ko udan, berriz, Miguel Angel Blanco hil zuen, eta hilketa horrek ordura arte inoiz izandako erantzunik handiena ekarri zuen. Bestalde, tentsio horrek eragina izan zuen partidu politikoen arteko harremanetan; ondorioz, 1998an, PSE-EE alderdiak Eusko Jaurlaritza utzi, eta 1994tik EAJrekin eta EArekin gobernatzeko zuen akordioa bertan behera geratu zen.

1998ko irailean, Euskal Herriko indar abertzaleek eta Ezker Batuak Lizarrako Akordioa sinatu zuten. Handik egun batzuetara, ETAk su-etena iragarri zuen. Ordura arteko giro latza nahikotxo baretu zen, su-etenak iraun zuen urte eta erdian.

Behin su-etena amaituta, ETAREN hilketak hasi ziren berriro, eta egindako zenbait atentatuk eragin itzela izan zuten gizartean. Horien artean, aipatzekoak dira 2000. urtean gertatutakoak: Fernando Buesa, Hezkuntza sailburu ohia, eta bere bizkartzainarena, Jorge Diaz Elorzarena; Juan Mari Jauregi, Gipuzkoako gobernadore zibil ohiarena; Jose Mari Korta, Adegiko buruarena; eta Ernest Lluch, Espainiako ministro ohiarena.

1998ko udan, Baltasar Garzon epaileak zuzenduriko operazioan, *Egin* egunkaria eta *Egin* irratia itxi zituzten, ustez ETArekin harremana izateagatik. Handik egun batzuetara, *Egin* egunkariko kazetari talde batek behin-behineko egunkaria sortu zuen, polizia-operazioak itxitako *Egin* ordezkatzeko: *Euskadi Información* egunkaria. Hurrengo urtarrilean kaleratu zen *Eginek* utzitako lekua bete duen *Gara* egunkariaren lehen alea. 1999. urtean Pepe Rei *Egin* egunkariko kazetaria atxilotu zuten.

1999ko irailean, EAJ, EA eta EH alderdiek Euskal Herriko udaletako hautetsien elkarte, Udalbiltza, sortu zuten.

2000. urtean, Baltasar Garzon epaileak kartzela-zigorra agindu zuen HBko bost kideren aurka, ETAREN nazioarteko aparatuko kide izatea leporatuta.

Hona hemen arlo sozial eta kulturean garrantzia izan zuten beste hainbat gertakari:

- 1990ean, *Euskaldunon Egunkaria* kaleratu, eta kate pribatuen emanaldiak hasi ziren.

- 1991n, Bertsozale Kultur Elkartek *Bertsolari* aldizkariaren lehen zenbakia plazaratu zuen.
- 1994an, Gasteizen, izatezko lehen bikoteak eman zuen izena Espainiako errolda ofizialean.
- 1995ean, Bilboko Kafe Antzokia argia ikusi zuen.
- 1997ko abenduan, Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua sortu zen.

## **b. Iparraldean**

1993. urtean, Frantziako Lege Biltzarrerako hauteskundeak ospatu ziren, eta eskuinak irabazi zuen. Aldaketa-joera hori bi urte geroago nabarmendu zen, Jacques Chirac-ek irabazi baitzituen presidente izateko hauteskundeak (1995); Mitterrand-ek kargua utzi behar izan zuen, boterean hamaika urte eman ondoren.

Dena den, aldaketa politiko horiek, itxura batean, oso eragin txikia izan zuten iparraldeko egoeran. Arlo ekonomikoan, Iparraldean, turismoa zen jarduera nagusia, kontuan izan gabe bertoko biztanleengan, aurrera begira, izango zuen eragina. Bestalde, 1990. urtean zenbait euskaltzalek Euskal Kultur Erakundea eratu zuten, euskal kulturaren ezagupen ofiziala lortzeko asmotan.

Telebista euskaraz ikusi ahal izateko eskariak hamarkadarekin batera hasi baziren ere, ETB ikusteko baliabide teknikoak jartzeko baimena ez zen eskuratu 1993. urtera arte. FR3 katea, bere aldetik, euskarazko emanaldi laburra emititzen hasi zen.

## **2. Lore digitalak zaborraren erdian (1990-1999)**

Musikan, ugaritasuna eta aniztasuna dira nagusi hamarkada honetan. Aurreko hamarkadetako talde askok musika egiten jarraitu zuten, baina talde berriak nonahi sortu ziren. Horrez gain, musika-estilo anitz landu ziren; talde batzuek euskal musikan ezezagunak ziren estiloak jorratu zituzten. Rockaren inguruko estilo gehienak landu ziren: heavya, trans-hardcorea, punka, rapa, reggaea, raggamuffina, funka, ska, post-rocka, noisea...

### 3. Gizarte-mugimendua eta musika

Emanaldiei eta jendaurreko agerraldiei dagokienez, hamarkada honetan, ordura arte antolatutako jaialdi jendetsuek gainbehera izan zuten, eta bakarrik geratu ziren festa kulturekin lotutakoak: *Euskaldunon Egunkariaren* festa, *Gararen* aurkezpena, Kilometroak, Kontseiluak antolatutako *Bai Euskarari* hitzarmena. Orditik aurrera, oso zaila egin zen 8.000 lagun biltzea jaialdi horietatik kanpo; azken kontzertu handia Negu Gorriak-ek eman zuen, banatu baino lehen (1996).

Esan bezala, hamarkada honetan desagertu ziren garai bateko kontzertu erraldoiak. Izan ere, gizartean desmobilizazio-garai bat hasi zen: erakunde politikoak egonkortu, eta urte batzuk lehenagoko gatazkaguneak isildu ziren. Horrekin batera, konpromisoa jaitsi edo aldatu egin zen, eta kontsumo- artikulu hutsa bihurtu kultura: individualismoaren garaia etorri zen. Halaber, ezker abertzalearen beherakada soziala nabaritu zen, eta mugimendu horri lotutako sustatzaile asko desagertu ziren. Gainera, gatazka politikoak isla izan zuen kultura-arloan, eta euskal taldeek lehendabiziko boikotak jasan zituzten. Bestalde, musika-taldeak komertzializatu ziren, eta, kanpoko talde handien antzera, egokitu.

Herri txikiak ez ziren jada kontzertu-leku. Baserri-giroa eta landa-giroa ia desagertuta zeuden, eta horrek ere eragin zion musikaren bilakaerari. Herri handi eta hiriburuak jaiek, berriz, izugarri egin zuten gora, eta hirien arteko lehia piztu zen nork eraman talderik arrakastatsuen. Udalek ikuskizunak bultzatu nahi zituzten, eta kanpoko talde handiak ekartzeari ekin zioten. Hori dela eta, jai bakan batzuetan baino ez zen talde euskaldunik egoten.

Esandako guztiaz gain, adierazi behar da 1990eko hamarkadan duela ernamuina musikan aldaketa sakonak ekarri zituen digitalizazioak. Horren ondorioz, musika errazago lor zitekeen: norberak lortu eta norberak entzun. Joera hori eguneroko ohitura bihurtu zen hurrengo hamarkadan.

Esan dugun bezala, 90eko hamarkada anitza izan zen musika-estiloen begiratuta: estilo ugari agertu zen, estilo nahasiak edo nahastearen ondorioz sortutakoak. 90eko hamarkadan lehen diskoa kaleratu zuten taldeak honako hauek izan ziren: Negu Gorriak taldeak, *Negu Gorriak* (1990); Su ta Garrek, *Jaiotze basatia* (1991); Balerdi Balerdik, *Balerdi Balerdi*; EH Sukarrak, *EH Sukarra* (1992); Zaldibobok, *Basajaun*; Anestesiak, *Gorrotoaren*

*Abotsa* (1993); Ama Sayk, *Ikusi ditut umeak kalean ametsak akatzen*; Etsaiak taldeak, *Presoak SOS* (1994); DUT taldeak, *Dut* (1995); King Manfrudi taldeak, *King Manfrudi* (1996); Joxe Ripiauk, *Positive Bomb*; PILT taldeak, *Pilt*; Anarik, *Anari* (1997); Basque Dub Foundation taldeak, *Sustraidun roots dub*; 2Katek, *Bide laburra...*

Talde horien artean, nabarmentzekoa da, bereziki, Negu Gorriak taldea. Sei urte bakarrik iraun zuen, baina garaiko ezaugarri guztiak bildu zituen bere baitan: rocka eta rappa nahastu zituen; zapalketa salatu, eta bat egin zuen mugimendu internazionalistekin eta presoan aldeko ekimenekin.

Garai hartako beste talde esanguratsu bat, dudarik gabe, Su ta Gar izan zen. Haren musika, hein batean, aurreko hamarkadaren heavyaren jarraipena zen, eta bere egin zituzten ezker abertzalearen inguruko zenbait planteamendu. Haien abestietako bat, hain zuzen, *Jo ta ke*, borrokaren premiaren eta borrokarako grinaren aldarrietako bat izan da zenbait belaunalditako gazteen artean. Talde horrek ia hogeitau urte daramatza euskal musikaren gailurrean, eta, oraindik orain, Euskal Herrian heavyaren erreferentea da.

Bestalde, RRV mugimenduko zenbait taldek jarraitu zuten beren lana argitaratzen eta jendaurrean eskaintzen: Anestesia, Barricada, Cicatriz, Delirium Tremens, La Polla Records, Hertzainak... Talde horietako askok azken hatsa hamarkada honetan eman zuen; musikan jarraitzea erabaki zuten kideak, ostera, talde berrietan lekutu ziren. Badago bere bideari bakarlari gisa ekin zionik ere, esaterako, Hertzainak taldeko Gari.

## **Iparraldeko taldeak**

Iparraldean ere rock-estiloak garatu ziren eta zenbait talde agertu: Sustraia (ska-rocka), Txakun (folk-rocka), Xabaltx (folk-rocka), King Mafrundi (reggaea), Haurtzarrak (hard-rocka), Skunk (reggaea, martxa, ska), Zapozain (euskal zeltikoa).

Sustraia taldeak ireki zuen rock-estiloaren bide hori, eta *Segi, segi* diskoa kaleratu zuen. Dantza-musika egin eta asteburuetako festa-giroa pizteko talde bihurtu zen. Era askotako entzuleak bildu zituen: gazteak, ez hain gazteak, euskal musikazaleak. Haien mezuak ez zuen bat egin Hegoaldeko taldeen mezu erradikalarekin; Sustraia taldeak autotrufaketarantz jo zuen.

## 4. Bestelako musika mugimenduak

- 90eko hamarkadan, hainbat bertsoari kantagintzaren bidetik jarraitu zuten, besteak beste, Xabier Amuriza, Andoni Egaña eta Sarasua anaiak. Igor Elortza eta Unai Iturriaga bertsoari ere, Josu Zabalarekin batera, Zazpi Eskale taldea eratu zuten, eta honako bi lan hauek argitaratu eman: *Bertso berriak pobrezari jarriak* eta *Barrenkaleko Bluesak*.
- Zenbait kantautorek estilo pertsonala garatu zuten: Mikel Urdangarin, Mikel Markez...
- Bestalde, zenbait idazle musikara hurbildu zen, eta musika eta literatura uztartuta hainbat saio eskaini zituzten. Horren adibide dira, bestak beste, honako lan hauek: Harkaitz Canok eta Igor Calzadak egindako *Uztail Oparu Ostean*, José Luis Otamendiren eta Iñigo Aranbarriren *Dana Lanbrotute ikustot* eta Kirmen Uriberen olerkietan oinarritutako *Zabarregia, txikiagia, agian* ikuskizuna.
- Horrez gain, trikitia abiapuntu hartuta, triki-rocka eta triki-popa, beste musika batzuen ezaugarriak bilduta sortutako nahasteak, jorratu ziren. Estilo horien adibide izan ziren *Gozategi*, *Ainboa* eta *Kalanbreak* diskoak (*Gozategi*), *Amets bat* diskoa (Alaitz eta Maider), *Mantalgorri* diskoa (Maixa eta Ixiar).
- Lanean jarraitu zuten euskal musikari klasikoek ere: Benito Lertxundi, Ruper Ordorika, Oskorri, Amaia Zubiria, Imanol, Xabier Lete, Xabier Montoia...
  - **Oskorrik** 1996. urtean Getxoko Folk Jaialdian 25. urteurrena ospatu zuen.
  - **Benito Lertxundik**, beste lan batzuen artean, 1998. urtean Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin *Auben Sinfonikoak* disko gogoangarria grabatu zuen.
  - **Ruper Ordorika** Joseba Tapiarekin eta Bixente Martinezekin elkartu, eta Hiru Truku taldea sortu zuten. Guztira, hiru disko argitaratu zituzten; lehenengo bietan, Bizkaiko baladak eta kanta zaharrak bildu zituzten; eta hirugarrenean, Nafarroako kanten altxorra berreskuratu zuten. Ruperrek, horrez gain, beste lau disko argitaratu zituen, eta, horien artean, *Ez da posible* kanta-bilduma gogoragarria.



## 5. Diskografia

Abeslaria Taldea	Diskografia	Aho Bete Kanta	Diskoetxea Urtea	Estiloa
2KATE	<i>Bide Laburra</i>		Esan Ozenki. 1997	Rock industrial, teknoa
	<i>Birziklatu</i>		Esan Ozenki. 1999	
AITOR ETA JON SARASUA	<i>Fauna Txiki bat bertso berritan</i>		1995	Bertsolari kantariak
AKAUZAZTE	<i>Ur Gardenak</i>		Esan Ozenki. 1998	Post rocka, noisea
AKAUZAZTE ETA BESTE BATZUK	<i>Blase?</i>		Amanita records. 1997	Post rocka, noisea
	<i>Museum</i>		Mer. 1999	
AKELARRE	<i>Akerraldian</i>	<i>Malko bi</i>	Elkar .1991	
	<i>Herrikoia</i>		1994	
	<i>Torkemada</i>		1995	
	<i>Akelarre zuzenean</i>		1996	
	<i>Akelarre zuzenean-13</i>		1997	
	<i>Bertako intxaurrek ere</i>		1999	

Abeslaria Taldea	Diskografia	Aho Bete Kanta	Diskoetxea Urtea	Estiloa
ALAITZ ETA MAIDER	<i>Alaitz eta Maider</i>	<i>Amets bat</i>	Elkarlanean. 1997	Triki-popa
	<i>Insbala</i>		Elkarlanean. 1999	
AMA SAY	<i>Ikusi ditut umeak kalean ametsak akatzen</i>	<i>Gana</i>	Esan Ozenki. 1993.	'Noise pop' (Rock gogorra)
	<i>No Iz pop</i>		Esan Ozenki. 1994.	
	<i>Say Ama</i>		Esan Ozenki. 1994.	
AMAIA ZUBIRIA & PASCAL GAIGNE	<i>Hamar urte zinemari</i>		Elkar. 1990	
AMAIA ZUBIRIA & TXOMIN ARTOLA	<i>Folk lore sorta I</i>		Elkar. 1991	
	<i>Folk lore sorta II</i>		Elkar. 1992	
	<i>Folk lore sorta III</i>		Elkar. 1993	
AMAIA ZUBIRIA	<i>Amonaren mengantza</i>		IZ. 1995	
	<i>Mami xuri</i>	<i>Estigma Beltza</i>	IZ. 1998	
	<i>Hon pitxu hou!</i>		Elkar. 1998	
ANARI	<i>Anari</i>	<i>Gure mundua</i>	Esan Ozenki. 1997	Folk-rocka
ANDONI EGAÑA	<i>Tximeletak sabelean</i>		IZ. 1994	Bertsolari kantariak
ANJE DUHALDE	<i>Xabier Amurizarekin kantari</i>		1991	Kantautorea
	<i>Zuzenean</i>		Elkar. 1993	
	<i>Su gainean dantzari</i>		IZ. 1994	
ANESTESIA	<i>Toki berean</i>		Esan ozenki. 1991	Trash metala eta hardcore-a (metal gogorra)
	<i>Gorrotorearen Abotsa</i>	<i>Agur</i>	Esan ozenki. 1993	
	<i>Erantzun</i>		Esan ozenki. 1995	
	<i>Gu</i>		Esan ozenki. 1997	
ANTTON VALVERDE	<i>Laurogeitamaazpi</i>		Elkar. 1997	Kantautorea
BALDIN BADA	<i>Baldin bada</i>		Oihuka. 1990	Funkaren, metalaren eta reggae-aren nahasketa
	<i>Erraien iraultza</i>		Esan ozenki. 1995	
BALERDI BALERDI	<i>Balerdi Balerdi</i>	<i>Lore etxean</i>	Gor. 1992	Rhythm@blues-a edo beat-a
	<i>Ez gara galdu</i>		Gor. 1994	
	<i>Hobe behin gorri ezenez beti hori</i>		Gor. 1997	
BASQUE DUB FOUNDATION	<i>Sustraidun roots dub</i>	<i>Txalaparta Steppers Dub</i>	Masive sounds. 1997	Reggaea
B.A.P.	<i>Zuria Beltzez</i>	<i>Amets gaitztoak</i>	Basati Diskak. 1993	Hardcore-punka
	<i>Lebertzeko Garuia</i>		Esan Ozenki. 1994	

Abeslaria Taldea	Diskografia	Aho Bete Kanta	Diskoetxea Urtea	Estiloa
BARRICADA (*)	<i>Barricada. En Directo</i>		Polygram. 1990	Punk-aren eta heavy-aren artekoa
	<i>Barricada 83-85</i>		Oihuka. 1990	
	<i>Por Instinto</i>		Polygram. 1991	
	<i>Balas blancas</i>		Polygram. 1992	
	<i>La araña</i>		Polygram. 1994	
	<i>Los singles</i>		Polygram. 1995	
	<i>Insolencia</i>		Polygram. 1996	
	<i>Salud y Rocanrol</i>		Polygram. 1997	
BENITO LERTXUNDI	<i>Hunkidura Kuttunak I eta II</i>		Elkar. 1993	Kantautorea
	<i>Hita3 oroit</i>	<i>Uda3ken koloreetan</i>	Elkar. 1996	
	<i>Auben sinfonikoa</i>		Elkarlanean. 1998	
BERRI TXARRAK	<i>Berri Txarrak</i>		Gor. 1997	Rocka
	<i>Ikasten</i>		Gor. 1999	
BETAGARRI	<i>Betagarri</i>		1997	Ska-rocka
	<i>Arren erro zabarra</i>		1998	
	<i>80/00</i>		Elkar. 1999	
BETI MUGAN	<i>Mugan</i>		Basati Diskak. 1992	Rocka, Folka
	<i>Oreka desorekan</i>		Basati Diskak. 1994	
BITTOR AIEPE	<i>Gaztea nai3, eta zer!</i>		1995	
BIZKAR HEZURRA	<i>Informazio pozoindua</i>		1993	
BROKEN BIHOTZ	<i>Desioak bere izena gradua galtzen duenean</i>		1992	
CICATRIZ (*)	<i>4 años, 2 meses y 1 día</i>		Zika Records. 1991	Punka
	<i>Colgado por tí</i>		Zika Records. 1992	
	<i>En directo</i>		Zika Records. 1994	
DANBA	<i>Plataforman</i>		Basati Diskak. 1990	Funk-rocka
	<i>Esanesamesaka</i>		Basati Diskak. 1991	
	<i>Frango Funts</i>		Esan ozenki. 1992	
DEABRUAK TEILATUAN	<i>Itsutumugur</i>		Esan Ozenki. 1995	Funk-punk-rapa
	<i>Zein da zein?</i>		1997	
DELIRIUM TREMENS	<i>Hiru aeroplano</i>		Oihuka. 1990	Pop-rocka
	<i>Bilbo zuzenean 91-5-24</i>		Esan Ozenki. 1991	
DOCTOR DESEO (*)	<i>Fugitivos del paraiso</i>		Oihuka. 1992	
	<i>Gotas de dolor... un charco de olvido</i>		Discos Suicidas. 1995	
	<i>Hay cuentos aún por inventar</i>		Discos Suicidas. 1998	
DUT	<i>Dut</i>	<i>Ezjakintasunaren kateak suntsitu</i>	Esan Ozenki. 1995	Hardcorea, metala, popa

Abeslaria Taldea	Diskografia	Aho Bete Kanta	Diskoetxea Urtea	Estiloa
EGAN	<i>Erromerian</i>		1990	
	<i>Baldn bada</i>		1990	
	<i>Queen omenduz</i>		1993	
EH SUKARRA	<i>EH Sukarra</i>	<i>EH Sukarra</i>	Esan Ozenki. 1992	Hardcore-heavy metala
	<i>Irtendide bakarrak</i>		Esan Ozenki. 1993	
	<i>Garaiazen laberintoan</i>		Esan Ozenki. 1994	
	<i>Ura suan</i>		Esan Ozenki. 1996	
	<i>Sua urtzean</i>		Esan Ozenki. 1999	
ERRAMUN MARTIRIKORENA	<i>Olerkarien oihartzuna</i>		1993	
ESKORBUTO (*)	<i>Demasiados enemigos</i>		Matraka. 1991	
	<i>El infierno es demasiado dulce</i>		DRO. 1993	
	<i>Aki no keda ni Dios</i>		1994	
	<i>Kalaña</i>		1996	
	<i>Dekadencia</i>		1998	
ETSALIAK	<i>Etsaien Etsaiak</i>		Esan Ozenki. 1993	Trans-hardcore-punka
	<i>Presoak SOS</i>	<i>Etorkezuna</i>	Esan Ozenki. 1994	
	<i>Gerra zikina</i>		Esan Ozenki. 1995	
	<i>1987-1997 10 urte</i>		Esan Ozenki. 1996	
	<i>Bakearen guda</i>		Esan Ozenki. 1997	
	<i>Askatasun taupada</i>		Esan Ozenki. 1999	
ETZAKIT	<i>Etzakit 98</i>		Elkar. 1998	Trikitia
EXKIXU	<i>Noiz edo noiz</i>		Elkar. 1999	Rocka
	<i>Exkixu</i>		Gor. 1993	
	<i>Gana heldu orduko</i>		1995	
FERMIN MUGURUZA	<i>Brigadistak Sound System</i>	<i>Urrun</i>	Esan Ozenki. 1999	
GARI	<i>Eguzki berritan zauda</i>	<i>Bilbo</i>	1999	
GONTZAL MENDIBIL	<i>Zu zu</i>		Ibaizabal. 1990	Kantautorea
	<i>Egunen batean</i>		Ibaizabal. 1992	
	<i>Iparragirre begalaria</i>	<i>Ume eder bat Hara non diran</i>	Keinu. 1992	
GOZATEGI	<i>Gozategi</i>		1995	Triki-popa
	<i>Ainhoa</i>	<i>Nirekin</i>	Elkar. 1996	
	<i>Kalanbreak</i>		Elkar. 1998	
GUK	<i>Arrozten</i>		Elkar. 1999	
HAURTZARRAK	<i>Biburrikerian</i>		Oihuka. 1998	Hard-rocka

<b>Abeslaria Taldea</b>	<b>Diskografia</b>	<b>Aho Bete Kanta</b>	<b>Diskoetxea Urtea</b>	<b>Estiloa</b>
HERTZAINAK	<i>Ametz prefabrikatuak</i>		Oihuka. 1990	Rocka
	<i>Mundu berria daramagu</i>		Aketo. 1991	
	<i>Zuzenean</i>		Aketo. 1991	
	<i>Denboraren orratzak</i>	<i>Larru beltzak</i>	Oihuka. 1992	
HIRU TRUKU	<i>Mendebaleko euskal baladak</i>	<i>Eguna zala</i> <i>Frantziako Andrea</i> <i>Izar ederrak</i> <i>Neska soldadua</i> <i>Zazpi nobio</i> <i>Mendebaleko euskal baladak II</i> 1997 <i>Lapurraena</i> <i>Lelotxo montañako</i>	Nuevos medios. 1994	Folka (Europako Estiloan)
IDI BIHOTZ	<i>Herriaren taupada</i>		Oihuka. 1997	Heavy metala
	<i>Arima erratu</i>		Elkar. 1999	
IMANOL LARZABAL	<i>Viajes de mar y luna</i>		1990	Kantautorea
	<i>Barne kanta</i>		1994	
	<i>Hori bera da denen ixtoria</i>		1996	
	<i>Oroitzen</i>	<i>Zure tristura</i>	A flor de tiempo. 1999	
JABIER MUGURUZA	<i>Boza barruan</i>	<i>Mazisi Okeita</i> <i>Denbelek</i>	Elkar. 1994	
	<i>Kitarra bat nintzen</i>	<i>Aurrak banditzen</i> <i>doaz</i>	Elkar. 1996	
	<i>Aire</i>		Elkar. 1997	
	<i>Fiordoan</i>		Esan Ozenki. 1999	
JEAN MIXEL BEDAXAGAR	<i>Bedaxagar</i>	<i>Godalet dantza</i>	Fonti Musicali Ikerfolk. 1996	
JOSE LUIS OTAMENDI, IÑIGO ARANBARRI	<i>Dana lanbrotute ikusot</i>		1998	Literatura+Musika
JOSEBA TAPIA, KOLDO IZAGIRRE	<i>Apoaren edertasuna</i>		Gaztelupeko hotsak. 1998	Literatura+Musika
	<i>Québec: hamalan kantu independentzarako</i>		Gaztelupeko hotsak. 1999	
JOJO ETA RAMUNTZO	<i>Haize andrea</i>		1990	
JOXAN GOIKOETXEA & JUAN MARI BELTRAN	<i>Eguraren orpotik dator</i>			
JOXE RIPIAU	<i>Positive Bomb</i>	<i>Positive Bomb</i>	Esan Ozenki. 1996	Tropikalismoa, reggaea
	<i>Karpe diem</i>		Esan Ozenki. 1997	
	<i>Paradisu Zinema</i>		Esan Ozenki. 1998	
JUAN CARLOS PEREZ	<i>Bitacora cahiera</i>		Esan Ozenki. 1992	Pop-jazza
	<i>Atlantic River</i>		Elkar. 1994	
	<i>Hau berna</i>	<i>Esan baietz</i>	Elkar. 1996	
KAXIANO	<i>Ongi etorri</i>	<i>Itsasontzi baten Zorionak!</i>	Elkar. 1991	

Abeslaria	Diskografia	Aho Bete Kanta	Diskoetxea Urtea	Estiloa
KEPA JUNKERA	<i>Triki Up</i>		Elkar. 1990	Trikitia
	<i>Trikitia Zoom</i>		Nuba Records. 1991	
	<i>Trans Europe Diatonique</i>		Silex. 1993	
